

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

5087

EBAZPENA, 2023ko urriaren 31koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Arautegia argitaratzekoa.

Kontuan izanik UPV/EHUren Estatutuen 18. artikulua, Gobernu Kontseiluaren eskumena da Ikasleen Arautegia onartzea, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluari entzun ondoren. Arautegi horrek gutxienez jaso behar ditu ikasleen eskubideak eta betebeharrak, haien ordezkartzaren estatutua, eta ikasleen elkarteek UPV/EHU parte hartzeko moduak.

Artikulu horretan ezarritakoa aplikatuz, Gobernu Kontseiluak, 2012ko ekainaren 21eko bileran, Ikasleen Arautegia onartu zuen, eta EHAAn argitaratu zen uztailaren 31n. Gobernu Kontseiluaren 2016ko azaroaren 30eko Erabakiaz, aldatu egin zen arautegia, ikastegien berrantolaketatik sortutako egoera berrira egokitzeko, batik bat. Aldaketa hori 2016ko abenduaren 22an argitaratu zen EHAAn.

Era berean, 2018ko ekainaren 7ko Erabakiaz, berriro aldatu zen arautegia, UPV/EHUko ikasleek unibertsitateko espazioak erabiltzeko prozedura arautzeko. Azkenik, Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 15eko Erabakiaren bidez, berriz ere aldatu zen arautegia, UPV/EHUko Estatutuen 20, 21 eta 22. artikuluen aldaketara egokitzeko, ikasleen kontseiluen funtzionamendurako zenbait arau eguneratzeko eta UPV/EHUko ikasleen elkarten arauak gaur egungo errealiterata moldatzeko.

Orain proposatzen dugun aldaketaren arrazoia da testua egokitu beharra unibertsitateko arautetara, batez ere arlo akademikoan, premia gabeko errepikapenik eta kontraesanik egon ez dadin. Bestalde, aldezearen gomendioz egindako aldaketaren bat ere egin da, eta argitu da praktikan zalantzaren bat sortu izan duen konturen bat. Beraz, orain arautegi osoa testu bakarrean bilduta aurkezten dugu, eranskinean ageri den bezala.

UPV/EHUren Estatutuen 187.1.d) artikulua idazkari nagusiari ematen dio UPV/EHUren erabaki guztien publikitatea bermatzeko eginkizuna. Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, berriz, 10. artikuluan ezartzen du antolaketaren eta jarduteko moduaren gainean unibertsitate publikoko gobernu organoek emandako estatutuak eta arauak, baita eta horien aldaketak eta orokorrean aplikatzekoak diren xedapenak ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko direla, eta ez direla indarrean jarriko harik eta testuak oso-osorik argitaratu arte.

Horregatik guztiagatik, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Bidaltzea Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Arautegia, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2023ko urriaren 19an onartua, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria eta Estatuko Aldizkari Ofizialera, haietan argitara dadin, eranskinean jasotzen den moduan.

Bigarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta, bere aurka, aukurako berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango zaio erabakia eman zuen organo berari, hilabeteko

2023ko azaroaren 13a, astelehena

epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da jurisdikzio ordena horretako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta ezin izango dira bi errekurtsuak batera aurkeztu.

Leioa, 2023ko urriaren 31.

UPV/EHUko idazkari nagusia,
AITOR ZURIMENDI ISLA.

ERANSKINA

UPV/EHUKO IKASLEEN ARAUTEGIA

ATARIKO TITULUA

1. artikulua.– Aplikazio eremua.

1.– Arautegi hau UPV/EHUko ikasle guztiei aplikatuko zaie. UPV/EHUko ikasletzat jotzen dira titulazio ofizialetan, berezko tituluetan edo bizitza osoko prestakuntzako ikasketa espezifikoetan matrikulatuta dauden pertsonak.

2.– Arautegi honetan aurreikusten ez den guztirako Unibertsitateko Ikasleen Estatutua aplikatuko da subsidiarioki (1791/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa).

I. TITULUA

IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

I. KAPITULUA

IKASLEEN ESKUBIDEAK

2. artikulua.– UPV/EHUko ikasleen eskubideak.

UPV/EHUko ikasleek, gainerako ordenamenduak aitortutako eskubideez gainera, honako hauek izango dituzte:

1.– Pentsatzeko, iritzia emateko eta beste batzuekin biltzeko eta elkartzeko askatasuna izatea, UPV/EHUren eremuan askatasunok erabiltzeko baliabideak izanik.

2.– Berdintasunez eta bazterkeriarik gabe bizitzea, alde batera utzita nongoan diren, unibertsitateko zein ikastegitakoak, zer ari diren ikasten eta bizitza osoko prestakuntzaren zein etapatan dauden matrikulatuta. Bereziki zainduko da premia bereziak dituzten unibertsitateko kideak baztertuak ez izatea beren desgaitasunagatik, ez zuzenean ez zeharka, ez sarbide prozesuan, ez onarpenean, ez unibertsitatean jarraitzeko arauen aplikazioan ez aitortuak dauzkaten titulu akademiko eta bestelakoak baliatzerakoan.

3.– Norberaren intimitatea, irudi propioa, duintasuna eta orientazio sexuala errespetatua izatea, eta jazarpenaren aurkako babes eraginkorra jasotzea.

4.– UPV/EHUko ordezkari eta gobernu organoetan esku hartzea, ordezkari aktiboaren eta parte hartzailearen bitartez, Estatutuek, arautegi honek eta UPV/EHUren gainerako garapen araudiek ezarritako baldintzetan. Beren ikastegietako zuzendaritza organoen hautaketan parte hartzea.

5.– Eragiten dieten unibertsitateko gaiei buruzko informazioa jasotzea.

6.– Beren eskubideak bermatuak izatea, prozedura egokien bitartez eta, beharrezkoa bada, Aldezleak esku hartuta.

7.– Beren eskubideak defendatzea eta beren aldarrikapen eta protesta akademikoak egitea. Etenaldi akademikorako deialdi bat eginez gero, eskolara ez doazen ikasleei hutsegite hori ez zaie aintzat hartuko, baina ikasturtearen hasieran ezarritako ebaluazio egutegia ez da aldatuko. Beraz, dena delako datarako adostutakoez gain, ezin izango da ebaluazio proba berririk ezarri.

8.– Osasuna zaintzeko eta arriskuei aurrea hartzeko babesa jasotzea campusetan. Arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza jasotzea, eta ikasketa jardueretan beren osasuna eta segurtasuna bermatzeko bitartekoak edukitzea.

9.– UPV/EHUUn ikastea, aukera berdintasunez eta indarrean dagoen unibertsitate legeriari jarraikiz.

10.– UPV/EHUtik bokazioari, ikasketei eta lanbideei buruzko informazioa eta orientazioa jasotzea, bai eta aholkua jasotzea ere ikasleei eragiten dieten unibertsitateko jardueraz, batez ere unibertsitate hedakuntzako jardueraz, unibertsitate ostatuaz, kirol ekintzez eta bizitza osasungarriaren beste arlo batzuez, bai eta lan mundura igarotzeko prozesuaz ere.

11.– Kalitatezko prestakuntza akademikoa jasotzea, aukeratutako ikasketei dagozkien gaitasunak eskuratzea bultzatuko duena eta ezagutza, trebetasun, jarrera eta balio demokratikoetan oinarrituko dena.

12.– Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea.

13.– Irakats eskaintza matrikula egin aurretik ezagutzea, hau da, eskolak emango dituzten irakasleak, eskoletako hizkuntza, ebaluazio probak egiteko egunak, eta kasuan kasuko deialdiak.

14.– UPV/EHUUn Jarraitzeko Arauez, zeinak Gobernu Kontseiluak onartzen baititu, informazioa jasotzea, eta haien ezarpen eta aplikazioan erantzunkidetasunez parte hartzea.

15.– Irakasgaiak aukeratzea, irakats programazioak eta ikastegiak eskura dauzkan baliabideek horretarako aukera ematen duten neurrian, eta jakinda irakasleak nortzuk izango diren.

16.– Ikasketak eta kultura eta kirol jarduerak behar bezala egiteko instalazio eta material egoiak izatea. Premia bereziak dituzten ikasleek unibertsitate inguru irisgarria izateko eskubidea izango dute, legez ezarritako baldintzetan.

17.– Ikasketen antolaketan parte hartzea, unibertsitateko organoen bitartez eta, hala badagokio, ikerketako zereginetan laguntzea.

18.– Beren prestakuntzan zehar tutoretza eta orientazio sistema eraginkor bat izatea beren esku, beren curriculuma eratuz joateko. Irakasleen, tutoreen eta ikaslearentzako arreta zerbitzuen aholkua eta laguntza indibiduala jasotzea, arautegi honek ezarritakoaren arabera. Tutoretzak ikasturtean zehar egingo dira, eta tutoretza ordutegia lauhileko bakoitza hasi aurretik argitaratu beharko da.

Desgaitasuna duten ikasleek eskubidea izango dute, halakorik behar balute, unibertsitateko ikastegiekin eta sailek esanguratsuak ez diren egokitzapen kurrikularrak egin ditzaten, eta beren beharren arabera tutoretza espezifikokoak ezar ditzaten.

19.– Irakasle-ikertzaileen ebaluazioan eta administrazioko zerbitzuen ebaluazioan parte hartzea eta ebaluazio horiei buruzko informazioa jasotzea, horretarako sortutako kalitate batzordeetan izango dituzten ordezkarien bitartez.

20.– Informazioa jasotzea ebaluaziorako eta kalifikazioak berrikusteko UPV/EHUko araez. Ebaluazio probak amaitzean, horiek egin izanaren agiri bat jasotzea. Beren errendimendu akademikoaren balorazio objektiboa eta, ahal bada, jarraitua jasotzea, ikaskuntza eta irakaskuntzarako metodologia aktiboan oinarritua, eta kalifikazioak berrikustea. Eskoletara ez joateak, besterik gabe, ez du ekarriko eskubide hau galtzea, zeina arautegi honetako V. tituluan arautzen den. Ebaluazio probak desgaitasuna duten ikasleen premietara egokitu beharko dira, eta, horretarako, sailek eta ikastegiekin behar diren moldaketak egingo dituzte metodologiari, denborari eta espazioei dagokienez.

Ebaluazio prozesu eta prozedurak dagozkien ebaluazio araudietan zehaztu ahal izango dira, eta zikloka bereizi ahal izango dira. Besteak beste, posibleak diren ebaluazio-sistemak, proba berri bat egiteko kasuak, kalifikazioak argitaratzeko epeak, kalifikazioak erreklamatzeko prozedura, kontentsazio bidezko ebaluazioa eskatzeko irizpideak eta prozedurak eta ebaluazio-epaimahaiak ezarri beharko dituzte.

21.– Legez onartutako prezio publikoak edo tasak ordaintzetik salbuetsita geratzea, eta aurreikusitako laguntzak jasotzea, kasu bakoitzean ezarritako baldintzetan. Era berean, estatuko deialdietako ikasteko bekak eta laguntzak eramangarriak izatea, hau da, beka eta laguntzok estatuko lurralde osoan baliatu ahal izatea, ikasleek zer bizileku duten kontuan hartu gabe; UPV/EHUko bekak ere eramangarriak izango dira, dagozkien deialdietan ezarritako baldintzetan.

22.– Mugikortasuna bermatuko duen administrazio eta finantza laguntza jasotzea, aurrekontuaren arabera.

23.– Doako prestakuntza jasotzea lankidetzako eta parte hartze sozialeko jarduerak egiteko UPV/EHUK sinatutako lankidetzak hitzarmenen esparruan.

24.– UPV/EHUK antolatutako borondatezko, parte hartze sozialeko, garapenerako lankidetzako, eta gizarte erantzukizuneko jardueretan parte hartzeko eskatzea. Sustatuko da desgaitasuna duten ikasleek parte hartzea garapenerako lankidetzako eta parte hartze sozialeko proiektuetan.

25.– Boluntario edo kooperante egiaztagiria edukitzea, jarduera egiteko gaituko eta identifikatuko duena.

26.– Unibertsitatearen aitortpen akademikoa jasotzea ikasleen ordezkari izateagatik, baita ere unibertsitateko kultura eta kirol ekintzetan, eta elkartasun eta lankidetzak ekintzetan parte hartzeagatik, indarreko araudian ezarritako baldintzetan. Ikasleak hala eskatuta, ziurtagiri bat egingo zaio, UPV/EHUK antolatutako borondatezko eta parte hartze sozialeko jardueretan ikasleak egindako zerbitzuena, honako hauek zehaztuta: data, iraupena, eta ikasleak boluntario edo kooperante gisa egindako zerbitzu mota.

27.– Jarduera akademikoak diseinatuta egotea ikasketak, lana eta familia bateratzeko moduan, eta ikasleek horretarako arreta jasotzea, UPV/EHUK antolakuntza eta aurrekontu baliabideen arabera.

28.– Beren lan esperientzia edo esperientzia profesionala onartua izatea ondorio akademikoetarako, UPV/EHUK ezarriko dituen baldintzei jarraikiz.

29.– Mugikortasun programetan parte hartzea, indarrean dagoen legeriaren esparruan.

30.– UPV/EHUK eta beste erakunde batzuek garatutako laneratzeko programak eta behatokiak ezagutzea, eta horietan parte hartzea.

31.– Beren datu pertsonalak erabiliak ez izatea, Datu Pertsonalak Babesteko Legean araututako xedeak betetzeko ez baldin bada.

32.– Ikasketetan eginiko lanen egile gisa aitortua izatea.

33.– Bizitza osoko unibertsitate prestakuntza hartzea. UPV/EHUK onarpen mekanismo espezifikoa ezarriko eta zabalduko ditu horretarako.

34.– Bere azterketaren kopia zuzendu bat eskuratzea, ebaluazio arautegian kalifikazioak berrikusi eta erreklamatzeko zehaztutako prozeduren arabera. Ezin izango da ikaslearen kalifikazioa jaisi berrikuspenaren eta erreklamazioaren ondorioz, nahiz eta UPV/EHUK zuzendu ahal izango dituen berak egindako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 109. 2 artikulua).

3. artikulua.– Gradu eta masterreko ikasleen eskubide partikularrak.

Gradu eta masterreko ikasleek honako eskubide partikular hauek izango dituzte:

1.– Gradu eta masterreko tituluak egiaztatzeke memorien berri jasotzea, eta haiek egiten parte hartzea.

2.– Aurretik jasotako prestakuntza, edo, hala badagokio, aurretik egindako lana edo jardun profesionala aitortua izatea.

3.– Irakaskuntza taldea aukeratzea, hala badagokio, UPV/EHUK ezarritako baldintzetan, ikasketak bateratu ahal izateko lanarekin, ikasketez kanpoko jardurekin edo familiarekin, eta, bereziki, genero indarkeriaren biktime diren andrazko ikasleek beren eskubideak bete ahal izateko.

4.– Kalitatezko prestakuntza teorikoa eta praktikoa jasotzea, bat datorrena aurretik egindako ikasketetan eskuratutako gaitasunekin, edo, masterren kasuan, jardun profesionalean aritzeko edo ikerketan hasteko kasuan kasuko tituluan ezarritako helburuekin.

5.– Lehen urtean eta gradu ikasketak egin bitartean, tutoretza eta orientazio pertsonalizatua jasotzea, unibertsitate ingurunera egokitzeko eta errendimendu akademikoa areagotzeko, eta ikasketen amaieran ere halako arreta jasotzea, laneratzeari, garapen profesionalari eta unibertsitate prestakuntzarekin jarraitzeari begira. Masterren kasuan, eskubide horren xedea izango da ikaslea jardun profesionalerako eta ikertzen hasteko prestatzea.

6.– Praktikak egiteko aukera izatea, curriculumekoak edo curriculumetik kanpokoak. Kanpoko erakundeetan eta UPV/EHUKo ikastegi, egitura edo zerbitzuetan egin ahal izango dira, aurreikusitako modalitatearen arabera eta dagokien prestakuntza xederako direla bermatuta.

7.– Tutoretza akademiko eta profesional eraginkorra jasotzea gradu amaierako eta master amaierako lanetan eta, hala badagokio, ikasketak planean aurreikusitako kanpoko praktiketan.

8.– Beren jabetza intelektuala aitortua eta babestua izatea, bai gradu edo master amaierako lanarena eta bai aurretik egindako ikerlanena, gaiari buruzko indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan.

9.– Mugikortasunerako laguntza deialdietan eta programetan parte hartzea, bereziki, ikasketen bigarren erdian.

10.– Erakundea ebaluatzeke prozesuetan eta unibertsitateen kalitatea bermatzeko agentzietan parte hartzea.

4. artikulua.– Doktoregoko ikasleen eskubide partikularrak.

Doktoregoko ikasleek honako eskubide partikular hauek izango dituzte:

1.– Kalitateko ikertzaile prestakuntza jasotzea, bikaintasun zientifikoa bultzatuko duena eta ekitea eta gizarte erantzukizuna aintzat hartuko dituen.

2.– Prestakuntza prozesua gidatuko dien tutore bat izatea, eta doktore tesia gainbegiratuko dien zuzendari bat izatea –eta, hala badagokio, zuzendarikide bat–, ikertzaile esperientzia egiaztatua izango duena.

3.– UPV/EHUK, hirugarren zikloko programetan, doktoregaiak ikertaldeetan eta ikerketa sareetan sartzea bultzatzea.

4.– Ikerketako karrera profesionala ezagutzea eta UPV/EHUK bere programetan ikerketa karrera egiteko aukerak sustatzea.

5.– Ikertzaileak prestatzeko eta mugikortasunerako laguntza deialdietan eta programetan parte hartzea.

6.– Doktore tesiaren emaitzei dagokien jabetza intelektualaren babesa izatea.

7.– Ordezkaritza eskubideei dagokienez, prestakuntza bidean dauden ikertzailetzat hartuak izatea, zientzia eta ikerketaren gaineko legeriak ezarritakoaren arabera.

8.– Doktorego programei jarraipena egiteko eta erakundea ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako baldintzetan.

5. artikulua.– UPV/EHUK eskainitako etengabeko prestakuntzako eta beste ikasketak batzuetako ikasleen eskubide partikularrak.

Ikasle horiek honako eskubide partikular hauek izango dituzte:

1.– UPV/EHUK etengabeko prestakuntza programak kalitate irizpideekin eta onarpen sistema malguekin garatzea, non aintzat hartuko diren ikaslearen aurreko prestakuntza eta lan esperientzia edo jardun profesionala.

2.– Ahal den neurrian, ikasketak lanarekin eta familiarekin bateratu ahal izatea. Genero indarkeriaren biktima diren andrazko ikasleen eskubideak bermatzeko, UPV/EHUK ahal bezainbesteko malgutasunaz antolatuko ditu ordutegiak.

3.– Zerbitzuen karta izatea, UPV/EHUK egingo eta zabalduko duena ikasturte bakoitzean, arlo honetan eskainitako prestakuntza zehaztuta. Zerbitzuen karta horrek honako hauek jasoko ditu, gutxienez: eskainitako jarduera motak eta horien iraupena, balio akademikoen mugak, hala bada-gokio, eta ikasketak egiteko eskura dauden bitartekoak.

6. artikulua.– Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHUKo ikasleen eskubideak.

1.– Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa egiaztatuta dauden ikasleek (203/2010 Dekretua, uztailaren 20koa, Goi Mailako Kirolari buruzkoa) eta goi mailako edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatuta dauden ikasleek (971/2007 Errege Dekretua, uztailaren 13koa, Goi Mailako eta Errendimendu Handiko Kirolariei buruzkoa) honako eskubide hauek izango dituzte, beste arautegi batzuetan aitortutakoez gainera eta unibertsitatearen kasuan kasuko gestio arautegiari jarraituz:

a) Txanda, ordutegia, taldea edo tutoretzak aukeratzea edo aldatzea, ikasketak bateratu ahal izateko entrenamenduen ordutegiarekin, lehiaketa ofizialetan parte hartzearekin eta ohiko bizilekutik kanpo egin beharreko kontzentrazioekin.

- b) Justifikatuta izatea eskolara ez joatea derrigorrezko saioen % 25 arte lehiaketa ofizialetan parte hartzeagatik, dagokion kirol federazioaren ziurtagiria aurkeztuta.
- c) Azterketen egutegi malgua izatea, haien datak lehiaketa ofizialen datekin bat datozenean, dena delako kirol federazioaren ziurtagiriaren bidez justifikatzen bada.
- d) Hautazko kredituak jasotzea, unibertsitatearen kasuan kasuko gestio arautegiari jarraituz.
- e) UPV/EHUren ordezkari izateko hautatuak diren kirolariei lehiaketarako beharrezkoa den kirol ekipamendua emango die Kirol Zerbitzuak. Era berean, unibertsitateak, bere ahalmenaren arabera, kirol instalazioak eta baliabide egokiak jarriko ditu haien esku, goi mailako edo errendimendu handiko kirolak eskatzen duen entrenamendu espezializatua egin dezaten, kasuan kasuko modalitatean.
- f) Tutore akademikoa esleitu dakien. Tutoreak laguntza akademikoa emango die, eta, horrez gain, programako ikasleen eta unibertsitateko estamentuen arteko bitartekaria izango da.
- g) Eskainitako plazen % 3 erreserbatuta izatea, eta Jarduera Fisikoari eta Kirolari buruzko ikasketetan, berriz, % 5. Eskubide hau goi mailako kirolariek baino ez dute izango.
- h) Salbuetsita egotea Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan sartzeko egin behar diren proba fisikoetatik. Eskubide hau goi mailako kirolariek baino ez dute izango.

2.– UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak beste kirolari talde batzuei zabaldu ahal izango dizkie aurreko atalean adierazitako eskubideak, g) letran aipatutakoa izan ezik, bere ahalmenaren arabera eta, betiere, beste ikasle batzuen eskubideak urratu gabe.

7. artikulua.– Genero indarkeriaren biktima diren andrazko ikasleen eskubide partikularrak

Genero indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten andrazko ikasleek –beren aldeko babes agindua aurkeztu beharko dute, edo salbuespen gisa, ministerio fiskalaren txostena, ikaslea genero indarkeriaren biktima izateko zantzurik badagoela adierazten duena– honako eskubide hauek izango dituzte:

- 1.– Txanda, ordutegiak, taldeak, tutoretzak aukeratzea edo aldatzea, beren segurtasuna bermatze aldera.
- 2.– Eskolara ez joatea justifikatuta izatea, arretarako gizarte zerbitzuek edo osasun zerbitzuek hala dagokiola uste badute.
- 3.– Azterketa egutegi malgua izatea, beren segurtasuna bermatze aldera.
- 4.– Arreta Psikologikorako Zerbitzuan arreta jasotzea.

8. artikulua.– Ikasleen eskubideak erditze, adopzio edo harrera kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dutenean.

Erditze, adopzio edo harrera kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura dutenean, ikasleek justifikatuta izango dute eskolara ez joatea derrigorrezko saioen % 25 arte.

9. artikulua.– Mendekotasuna duen senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleen eskubideak.

Mendekotasuna duen senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleek (aurreikusten den bezala 39/2006 Legean, abenduaren 14koan, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun

egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoan, edo unean indarrean dagoen legean) eskubide hauek izango dituzte:

1.– Justifikatuta izatea eskolara ez joatea derrigorrezko saioen % 25 arte.

2.– Txanda, ordutegiak, taldeak eta tutoretzak aukeratzea edo aldatzea.

10. artikulua.– Ikasketak eta lana bateratu behar dituzten ikasleen eskubideak.

1.– Gizarte Segurantzaren alta eta lan kontratua aurkeztuta, astean 20 ordu baino gehiagoko lanaldia dutela eta lanaldi hori eta eskolara joatea bateraezinak direla egiaztatzen duten ikasleek eskubide hauek izango dituzte:

a) Justifikatuta izatea eskolara ez joatea derrigorrezko saioen % 25 arte.

b) Txanda, ordutegiak, taldeak eta tutoretzak aukeratzea eta aldatzea.

2.– Goian aipatutako dokumentazioarekin batera, ikasleak berak sinatutako txosten bat aurkeztu beharko du, honako hauek adierazita: lanaldia, kontratuaren iraupena, zer irakasgai edo gairen eskoletara ezin den joan, eta eskolen ehuneko zenbatera ez litzatekeen joango.

3.– Salbuespen gisa, ikastegiak goian aipatutako eskubideak aitortu ahal izango dizkie astean 20 ordu baino gutxiagoko lanaldia duten ikasleei, aurkeztutako dokumentazioa eta ikasleak bere idatzian adierazitako inguruabarrak aztertu ondoren.

11. artikulua.– Hizkuntza eskubideak:

Ikasleek honako hizkuntza eskubide hauek izango dituzte:

1.– Hizkuntza ofizialetako edozeinetan jardutea.

2.– Hizkuntza ofizialetako edozeinetan izatea harremanak UPV/EHUko organoekin.

3.– Irakaskuntzako programazioan zehaztutakoaren arabera aukeratutako hizkuntza ofizialean ikastea eta ebaluazio probak hizkuntza horretan egitea.

4.– Ikerlanak hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin, argitaratu eta defendatzea.

5.– Nolanahi ere, eskaintza elebiduna izanik, euskarako talderik ez egoteagatik gaztelaniako taldean matrikulatu behar diren ikasleei ebaluazio probak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko zaie.

6.– Gradu edo master amaierako lana euskaraz egitea eta aurkeztea.

12. artikulua.– Eskubideen eraginkortasuna.

Arautegi honek ikasleei aitortutako eskubideak errealak eta eraginkorrak izan daitezen, UPV/EHUK konpromiso hauek hartzen ditu bere gain, besteak beste:

1.– Ikasleei eskubideei buruzko informazioa ematea, eta eskubideok gauzatzeko erraztasunak ematea.

2.– Behar diren baliabideak jartzea eta egokitzapenak egitea, desgaitasuna duten ikasleek gainerako ikasleen baldintza beretan bete ditzaten beren eskubideak, maila akademikoa horregatik jaitsi gabe.

3.– Arautegi honek aitortutako eskubideak baliatzeko aukera bermatzea, prozedura egokien bidez eta, behar izanez gero, Aldezlearen bitartez.

4.– Behar diren irakaskuntza baldintzak eta eskaintza osagarriak bultzatzea, honako helburu hauekin: ikasleen garapen pertsonala sustatzea; haien prestakuntza osoa lortzea; ikasleek ikerketa eta garapen jardueretan parte hartzea, UPV/EHUn bertan edo UPV/EHUK berak sortutako edo bera partaide den erakundeetan; ikasleen prestakuntza praktikoa osatzea; eta haiei gizarteratzen eta laneratzen laguntzea. Horretarako, hezkuntza lankidetzarako eta praktikak egiteko hitzarmenak sinatuko dira enpresa eta erakunde publiko nahiz pribatuekin, ikasleen eta unibertsitateko tituludunen lan poltsak sortzea sustatuko da eta haiek enpresak sortzea bultzatuko da. Era berean, ikasleen parte hartzea eta haiek elkarteak sortzea sustatuko da. Horri begira, UPV/EHUK laguntza sistema zabala bultzatuko du.

5.– Bermatzea arautegi honetan aitortutako eskubideak baliatzeak ez diela ikasleei inolako zigorrik edo kalterik ekarriko, betiere indarreko legeriaren arabera gauzatzen badituzte eskubideok.

6.– Ikastegiko zuzendaritzak eta saileko zuzendaritzak irakasleen irakaskuntza betebeharrak betetzen direla zainduko dute, Ikuskaritza Zerbitzuari lagunduz.

II. KAPITULUA

IKASLEEN BETEBEHARRAK

13. artikulua.– Ikasleen betebeharrak.

Unibertsitateko kideak direnez, UPV/EHUKo ikasleek, gainerako ordenamenduan aitortutakoez gainera, honako betebeharrak izango dituzte:

1.– UPV/EHUKo Estatutuak eta gainerako arautegiak ezagutzea eta betetzea. Bereziki, segurtasunari eta osasunari buruzko barne arauak ezagutu eta bete beharko dituzte, batik bat, praktika laborategien erabilerari eta ikerketa inguruneen buruzkoak.

2.– Gainerako pertsonen eskubideak errespetatzea, eta UPV/EHUKo Estatutuen, arautegi honen eta gainerako arau juridikoen arabera jardutea.

3.– Gainerako pertsonekin errespetuz jokatzeko, inor baztertu gabe.

4.– Dagozkien egitekoak bere gain hartzea profesionaltasunez, eta unibertsitateko beste kideekin lankidetzan jardutea, UPV/EHUKen helburuak lortzeko eta haren funtzionamendua hobetzeko.

5.– Hauteskunde edo izendapen bidez eskuratutako karguak arduraz eta erantzukizunez betetzea.

6.– Parte hartzen duten kide anitzeko organoen jardun eta erabakien ematea beste ikasleei, bai eta beren jardunaren berri ere, betiere organoari zor dieten zuhurtziaz eta diskrezioaz.

7.– Partaide diren kide anitzeko organoen bileretan esku hartzea, modu aktiboan eta erantzukizunez.

8.– UPV/EHUKen xedeak eta funtzionamendua hobetzen laguntzea.

9.– UPV/EHUKen edo haren erakunde lankideen ondarea, ondasunak, baliabide materialak eta instalazioak behar bezala erabiltzea eta zaintzea.

10.– Justifikaziorik gabeko tratu berezirik edo pribilegiorik ez onartzea.

11.– UPV/EHUKen edo haren organoen izena, sinboloak eta ikurrak errespetatzea eta zuzen erabiltzea.

12.– UPV/EHUren ekitaldi akademikoak errespetatzea, beren adierazpen eta manifestazio askatasuna horregatik urritu gabe.

13.– Ez baztertzea inor –ez unibertsitateko kiderik ez erakunde lankideetako edo unibertsitatean zerbitzua ematen duten enpresetako langilerik– adina, sexua, arraza, erlijioa, sexu orientazioa, genero identitatea, desgaitasuna edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal dela kausa, eta aktiboki eragoztekoa halako bazterketarik gertatzea.

14.– UPV/EHUren xedeak eta funtzionamendua hobetzen laguntzea.

15.– Ikastea, eta beren prestakuntza osatzeko lagungarriak diren jarduera akademikoetan parte hartzea. Doktoregoko ikasleen kasuan, ikertzea.

16.– Parte hartzen duten ebaluazio prozesuetan erantzukizunez jokatzeko eta objektiboak izatea, unibertsitateko jardueren kalitatea hobetzeko helburua izanik, eta UPV/EHUko ebaluazio probetan edo dokumentu ofizialetan iruzurrik ez egitea edo halakorik egiten ez laguntzea.

17.– Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan subjektu aktibo gisa parte hartzea, ezarritako prozedurak eta epeak errespetatuz.

18.– Esku hartze sozialerako eta garapenerako lankidetzarako jardueretan parte hartu nahi izanez gero, jarduerok ondo egiteko antolatzen diren prestakuntza saioetara joatea.

19.– UPV/EHUko Estatutuek eta horiek garatzeko araudiek emandako gainerako guztiak.

II. TITULUA

IKASLEEN ORDEZKARITZAREN ESTATUTUA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

14. artikulua.– Ordezkarriak.

1.– Ordezkarriak izango dira UPV/EHUko ordezkaritza eta gobernu organoetan parte hartzen duten ikasleak, beren kolektiboko kideek horretarako aukeratuta, arautegi honek, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorrak eta gainerako unibertsitate arauak ezarritakoaren arabera.

2.– Taldeko delegatuak ikastegiko, egoitzako edo ataleko ikasleen kontseiluaren eta ikasleen arteko berezko solaskideak dira.

Ikastegi eta atalek delegatuen hauteskundeetarako deialdia egingo dute eskolaldiaren lehen hogeitun egunen barruan. Horretarako, arautegi honen II. eranskineko protokoloari jarraituko zaio. Era berean, ikastegi eta atalek beren hauteskunde protokoloak onartu ahal izango dituzte, kasuan kasuko ikastegi edo saileko ikasleen kontseiluak berretsiz gero.

Delegatuek titulu honetako 18. artikuluko ezarritako betebeharrak izango dituzte. Era berean, 17. artikuluko 1etik 3ra bitarteko puntuetan aitortutako eskubideak izango dituzte.

Ikasleek konfiantza kenduko ahalko diote delegatuari. Horretarako, beste hautagaitza bat aurkeztu beharko dute, eta lortu beharko dute aurreko delegatua hautatu zuten ikasleen zerrendako bi herenek beren alde bozkatzea.

Ikastegiko, egoitzako edo ataleko ikasleen kontseilua ezin izan bada eratu, taldeko delegatuak ikasleen solaskide gisa jardun ahal izango du unibertsitateko gobernu organoen aurrean, eta 17. artikulua 1., 2., 3., 5. eta 6. zenbakietan ikasleen ordezkariari aitortutako eskubideak izango ditu.

3.– Ikasleen ordezkariaren parekotasun printzipioa errespetatzea bultzatuko da, gizonen eta emakumeen parte hartzea proportzionala izanik. Era berean, desgaitasuna duten pertsonak ikasleen ordezkari izatea bultzatuko da.

15. artikulua.– Hauteskundeetan parte hartzea.

1.– Unibertsitateko ikasle guztiek konpromisoa dute UPV/EHUko, ikastegiko eta saileko gobernu organoetan eta beren kolektiboetan modu aktiboan eta demokratikoan parte hartzeko, beren ordezkariak hautatuen bidez.

2.– UPV/EHUK ikasleak bultzatuko ditu hauteskundeetan modu aktiboan parte hartzea. Hala, horretarako behar diren bitarteko materialak eta informazioa jarriko du haien esku, eztabaida bultzatuko du, eta saiaturiko da ikasleak inplika daitezen beren parte hartzea areagotzeko mekanismoen diseinuan.

16. artikulua.– Ikasleen ordezkaria izateari uztea.

1.– Ordezkaria izatea norberari dagokion ezaugarria da eta galdu egingo da hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Heriotza, ezintasuna edo desgaitasuna.

b) Hauteskundeak baliogabetzea.

c) Agintaldia amaitzea.

d) Dimisioa ematea.

e) UPV/EHUkoa izateari edo ordezkatzeko zuten kidegokoa izateari uztea.

f) Organoaren segidako bi bilerara edo tartekako lau bilerara ez joatea justifikaziorik gabe. Horren ondorioz, ez zaizkio aitortuko organo horretan ordezkaria izateagatik kredituen transferentziari buruzko arautegiaren arabera zegozkion ECTS kredituak.

2.– UPV/EHUko ikasleen kontseiluek kargutik kendu ahal izango dituzte ikasleen ordezkarietarako UPV/EHUko beste organo batzuetarako izendatu dituzten ordezkariak, bai eta UPV/EHUtik kanpoko beste organo batzuetarako izendatu dituztenak ere, baldin eta azken horien araudiak aukera hori ematen badu.

II. KAPITULUA.

ORDEZKARIEN ESKUBIDEAK

17. artikulua.– Ordezkarien eskubideak.

Ikasleen ordezkariak honako eskubide hauek izango dituzte:

1.– Ordezkari edo delegatu lana askatasunez betetzea.

2.– Beren iritzia askatasunez adieraztea, arauak eta pertsonetikiko eta erakundearekiko errespetua izanik horren muga bakarrak. Ordezkariak beren eginkizuna betetzean egiten dituzten

adierazpenak ordezkari diren aldetik egindakotzat joko dira, eta ez norberaren izenean egindakotzat, eginkizun hori betetzean izan dezaketen erantzukizuna ezertan galarazi gabe.

3.– Ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko informazio zehatza eta zuzena jasotzea.

4.– Erabakiak hartzeko prozesuan eta politika estrategikoetan erantzunkidetasunez parte hartzea.

5.– Ikasketak eta ordezkaritza jarduerak bateragarriak izatea, beren prestakuntzari kalterik egin gabe. Zehazki, gobernu eta ordezkaritza organoetan ikasleen ordezkari gisa parte hartzeak ordezkariaren prestakuntzari eragiten diola ikusten bada, irakasleek tutoretza osagarriak antolatuko dituzte, ordezkariak irakasgaia edo gaia behar bezala gainditzeko ezagutza lortuko duela bermatze aldera. Nolanahi ere, ikasleen ordezkariak justifikatuta izango dute eskolara ez joatea derrigorrezko saioen % 25 arte, UPV/EHUko Estatutuen 11. artikuluko 1., 4. eta 5. ataletan aipatzen diren kide anitzeko organoen bileretara joateko, edo UPV/EHUko Estatutuen 11. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren kide bakarreko organoek deitutako bileretara joateko. Eskubide berbera izango dute UPV/EHUtik kanpoko ordezkaritza organoen bileretara joan behar badira ikasleen ordezkari gisa horretarako hautatu dituztelako.

Era berean, UPV/EHUren Estatutuen 11. artikuluko 1. eta 5. ataletan aurreikusitako kide anitzeko organoen bileretara edo UPV/EHUtik kanpoko ordezkaritza organoen bileretara joateagatik ebaluazio proba programatuetara aurkeztu ezin diren ordezkariak beste egun eta ordu bat eskatu ahal izango dute proba horiek egiteko. Horri dagokionez, ulertuko da ordezkariak ezin direla ebaluazio probara joan, baldin eta organoaren bilera ebaluazio probaren aurreko hogeita lau orduen barruan egiten bada.

UPV/EHUko kide anitzeko organoak saiatuko dira bilerarik ez jartzen ez azterketa garaian ez azterketen aurreko ikasketa egunetan.

Unibertsitatez kanpoko arautegiren batek ordu praktikoaren kopuru bat betetzea eskatzen badu, ikastegiak plangintza berezi bat emango die ikasleen ordezkariari, atal honetan aipatutako ordezkaritza eginkizunak betetzeagatik galdutako nahitaezko praktikak berreskuratzeko aukera izan dezaten.

Ordezkariak hala eskatuko balu, kasuan kasuko idazkaritzak jakinaraziko die dagokien ikastegi eta sailtako kide bakarreko organoari ikasle hori ordezkaria dela, horiek jakinaraz diezaieten irakasgaien arduradunei, horrela ordezkari lanaren eta betebeharrak akademikoaren arteko talkarik ez sortzeko, eta balizko gatazkak aurreikusi eta eragozteko.

6.– Ebaluazio araudiaren arabera ebaluatuak izatea.

7.– Ikasleentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaltzeko espazio fisikoak eta baliabide telematikoak izatea. Horrez gain, espazio propioak eta eskusiboak bermatuko zaizkie ordezkariari, informazioa zabaltzeko ez ezik, ordezkaritza lanak ere egin ahal izateko. Funtsezkoa izango da informazio horrek formatu irisgarria izatea eta espazio horiek egokituta egotea desgaitasuna duten ikasleen sarbidea eta parte hartzea ahalbidetzeko.

8.– Ikasleen ordezkari gisa bere funtzioak normaltasunez betetzeko baliabide teknikoak eta ekonomikoak izatea.

III. KAPITULUA

ORDEZKARIEN BETEBEHARRAK

18. artikulua.– Ordezkarien erantzukizunak.

Ordezkatzen dituzten pertsoneri eta UPV/EHUri dagokienez, ikasleen ordezkariak honako erantzukizun hauek izango dituzte:

1.– Bileretara joatea, eta ordezkatzeko duten taldearen proposamenak, interesak, ekimenak eta kritikak defendatzea UPV/EHUko organoen aurrean, ikasle orok UPV/EHUko arauen arabera horiek zuzenean helarazteko duen eskubidea horregatik galarazi gabe.

2.– Eman zaizkien lanak eta erantzukizunak eraginkortasunez eta arduraz betetzea.

3.– Kargua izateagatik jasotako informazioa zuzen erabiltzea, horren konfidentzialtasuna errespetatuz, izaera horrekin eman bazaie.

4.– UPV/EHUren eskubideak eta ondasunak babestea, sustatzea eta defendatzea.

5.– Beren egitekoak edo eskubideak betetzeko haiei utzitako lokalak, materiala, dokumentuak eta gainerako ondasunak zaintzea eta zuzen erabiltzea.

6.– Ikasleen eskubideak betetzearen alde lan egitea.

7.– Partaide diren kide anitzeko organoen jardun eta erabakien berri ematea beste ikasleei, bai eta beren jardunaren berri ere. Informatzeko betebeharra dagokion zuhurtziaz eta diskrezioaz beteko du, datuak babesteari buruzko araudia errespetatuz. Betebehar hori ez betetzeak dagozkion erantzukizunak ekarriko ditu.

III. TITULUA

IKASLEEN KONTSEILUAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENENGO ATALA

IZAERA, PRINTZIPIO OROKORRAK

19. artikulua.– Ikasleen kontseiluen izaera, printzipioak eta araubide juridikoa.

1.– Ikasleen kontseiluak organo estatutario independenteak dira. Estatutuetako 11.4 artikuluan daude jasota UPV/EHUren organigrama orokorraren barruan, ikasleak ordezkatzeko kide anitzeko organo gisa. Ikasleen kontseilu hauek eratuko dira: UPV/EHUko Ikasleen Kontseilua, campusetako ikasleen kontseiluak, ikastegietako ikasleen kontseiluak, eta, hala badagokio, atal edo egoitzetako ikasleen kontseiluak. Arautegi honi dagokionerako, egoitzako ikasleen kontseiluek, halakorik dagoenean, ataletako ikasleen kontseiluen tratamendu bera izango dute.

2.– Funtzionamendu demokratikoa izango dute, eta arautegi honen bidez arautuko dira, UPV/EHUko Estatutuei eta gainerako araudiei lotuta.

3.– Ikasleen kontseiluetan ezin izango da sineste edo alderdi politiko jakin baten alde jardun, ez eta norberaren irabazia bilatu ere, organoaren izaera publikoari dagokion bezala eta indarreko legeriari men eginez.

4.– Ikasleen kontseiluen egoitzak eta bulegoak kokatuko dira espazioak banatzeko eskumena duen organoak esleitutako lokaletan, kasuan kasuko ikasleen kontseiluaren iritzia entzun ondoren.

20. artikulua.– Ikasleen kontseiluen kide anitzeko eta kide bakarreko ordezkari organoak.

1.– Ikasleen kontseiluek kide anitzeko organoen funtzionamendua izango dute, eta, hobeto funtzionatzeko, lan batzordeak sortu ahal izango dituzte.

2.– Ikasleen kontseiluen kide bakarreko organoak hauek dira:

– kontseiluko presidentea.

– idazkaria.

– Diruzaina. Ezinbesteko organoa izango da UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan eta campuse-tako ikasleen kontseiluetan.

– Presidenteordea, hala badagokio. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan organo hori ezinbesteko izango da, eta kontseilu hori izango da presidenteorde bat baino gehiago izan ditzakeen bakarra.

3.– Campuseko Ikasleen Kontseiluko presidentek kide bat izendatu ahal izango du, Ikasleen Kontseilukoa edo ez, bere eginkizunetan laguntzeko. Nolanahi ere, kide hori dagokion campuseko ikaslea izan beharko da.

Kide horiek ikasleen ordezkarietara aitortutako eskubideak izango dituzte, bai kontseiluko zereginak ikasketekin eta ebaluazio probekin bateratzeari dagokionez, bai kontseiluko presidenteari laguntzeko behar dituzten baliabideak izateari dagokionez.

4.– Nolanahi den, ikasle kontseilu bateko presidentea ordezkatu behar denean bere eginkizun organikoetan, kontseilu horretako beste kide batek (presidenteordeak, halakorik bada) egingo du hori.

5.– Ikasleen kontseiluek, arautegi hau eta indarrean dauden gainerakoak errespetatuz, barne funtzionamendurako araubidea adostu ahal izango dute bertaratutako kideen gehiengo osoaz. Edonola ere, ikasleen kontseilu bakoitzeko presidentek bere gain hartuko du bere eginkizunen esparruan egindako kudeaketaren erantzukizuna.

BIGARREN ATALA

IKASLEEN KONTSEILUKO KIDEAK

21. artikulua.– Ikasleen Kontseiluko kidea izatea.

Kargua utziko duen kontseiluko presidentek, edo, horrelakorik izan ezean, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko Hauteskunde Batzordeak ikasleen kontseiluetako kideei deituko die kontseilua eratzeke. Ikasleen kontseiluko kidearen izaera organo hori eratzearekin eskuratzen da.

22. artikulua.– Ikasleen Kontseiluko kideen eskubideak.

UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kide edo campus, ikastegi edo ataletako ikasleen kontseiluetako kide diren neurrian, ordezkariak, arautegi honek aitortutako eskubideez gainera, honako eskubide hauek izango dituzte, dagokien eremuan:

1.– Hautesle eta hautagarri izatea ikasleen kontseiluetako kargu eta ardura guztietarako, arautegi honek ezarritakoaren arabera.

2.– Hitz egitea eta parte hartzea, Ikasleen Kontseiluaren funtzionamendurako eta elkarbizitzarako arauari jarraituz.

3.– Bilkuretako aktetan beren ekintza eta mintzaldien zehaztasunak jasoaraztea, egoki iritziz gero.

4.– Hala eskatuz gero, kontseiluko beste edozein instantziaren informazioa eta azalpenak jasotzea, bai eta haren artxiboak eta dokumentuak behar besteko bermekin kontsultatzea ere.

5.– Norbera kide den kontseiluko bulegoa, materiala eta azpiegiturak baliatzea, modu desegokian erabiltzen ez baditu, eta kontseiluaren jardun normala eragozten ez badu.

6.– Aztergai zerrendarako gaiak proposatzea kontseiluaren hurrengo bileretarako, arautegi honen arabera haietarako deialdia egin aurretik.

23. artikulua.– Ikasleen kontseiluetako kideen betebeharrak.

Ikasleen Kontseiluko kide diren neurrian, ordezkariak, arautegi honen arabera ordezkari gisa dagozkien betebeharrez gainera, honako hauek izango dituzte, dagokien eremuan:

1.– Beren ikasleen kontseiluko erabakiak betetzea, betearaztea eta ordezkatzeko dituzten kideei ezagutaraztea.

2.– Ordezkatzeko dituzten ikasleen iritzia helaraztea eta defendatzea, eta, bestalde, ikasleei informazioa eta kontuak ematea euren Ikasleen Kontseiluan egiten duten lanaz.

3.– Ikasleak jakitun edukitzea Ikasleen Kontseiluaren jardunaz eta erabakiez.

4.– Beren karguaren eginkizunetan egindakoaren berri ematea Ikasleen Kontseiluko gainerako kideei.

5.– Ikasleak bultzatzea dagokien ikasleen kontseiluan parte hartzera, bai eta ikastegiko, campuseko edo UPV/EHUko ikasleen kontseiluan ere.

HIRUGARREN ATALA

IKASLEEN KONTSEILUEN JARDUN PRINTZIBIOAK, FUNTZIONAMENDUA ETA FINANTZABIDEAK

24. artikulua.– Ikasleen kontseiluen jardun printzipioak.

1.– Ikasleen kontseiluak beren kideen jarduna zehazten duten erabakigune gorenak dira. Ikasleen nahia adierazten dute, eta beren jardun eremuko gaiak eztabaidatzea eta haien inguruko erabakiak hartzea dagokie.

2.– Ikasleen kontseiluen jarduna justizia, berdintasun, askatasun eta demokrazia printzipioetan oinarritu behar da.

3.– Ikasleen kontseiluetan kide guztiak independenteak dira, eta erabakitzeko ahalmena dute. Halaber, kide bakoitzak boto eskubidea izango du, pertsonala eta besterenezina.

4.– Ikasleen kontseiluek barne funtzionamendurako erregimen propioa finkatu ahal izango dute, arautegi hau eta indarrean dauden gainerako arauak errespetatuz.

25. artikulua.– Ikasleen Kontseiluen deialdiak.

1.– Ikasleen Kontseiluak ohiko bilera egingo du hiru hilabetez behin, eta ezohiko bilerak egingo ditu kontseiluko presidentek hala erabakitzen badu edo kideen bosten batek hala eskatzen badu, edo ehuneko txikiago batek, Ikasleen Kontseiluaren barne funtzionamendurako araubidean horrela ezarrita badago. Salbuespenezko eta premiazko arrazoiengatik baino ez da bilduko UPV/EHUrren eskola egutegiaren arabera jaiegun eta opor egun direnetan. Jaieguntzat edo oporraldizat joko dira esparru egutegi akademikoan hala ezarrita daudenak.

2.– Ikasleen Kontseilua biltzeko deia kontseiluko presidentek egingo du, bilera baino 48 ordu lehenago, gutxienez. Deialdiaren idatzian aztergaien zerrendako puntu guztiak agertuko dira eta, hala behar izanez gero, horiei dagokien dokumentazioa erantsiko da ele bitan, salbuespenetan izan ezik. Kontseiluko presidentek aztergaien zerrendan sartu beharko ditu kideen % 10ek idatzi baten bidez eskatutako puntuak. Kontseiluak premiazkoztat jotzen dituen gaiak gehitu beharko dira, baldin eta, gutxienez, kideen % 80 badaude bileran.

3.– Ikasleen Kontseiluko kide guztiak egonda, aho batez erabakitzen badute lan saio bat egitea aurreko puntuan aipatutako deialdia egin gabe, bilera horrek balioa izango du ondorio guztietarako.

4.– Ohiko bilera guztietan, aztergaien zerrendako derrigorrezko puntuak honako hauek izango dira: aurreko bileraren eta onartu gabe zeuden ezohiko bileren aktak irakurtzea eta onartzea, Batzorde Iraunkorrak hartutako erabakien berri ematea edo lan batzordeek proiektuen gauzatze mailaren berri ematea eta galde-eskeak.

5.– Ikasleen Kontseiluaren bilerak publikoak dira, eta haren jardun eremuko ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute haietan, aretoa bete arte. Kontseiluko presidentek mintzaldiak moderatuko ditu, bilera zuzen egiten dela bermatzeko. Edonola ere, kontseiluko presidentek, egoera kontuan hartuta, bilera itxia egitea erabaki dezake, saio osorako edo gai batzuetarako. Erabaki horren berri deialdia egitean edo bileraren hasieran eman dezake, bai eta bileran zehar ere.

26. artikulua.– Quoruma.

1.– Bilerak egiteko, deliberatzeko eta erabakiak hartzeko, Ikasleen Kontseilua zuzen eratuta egongo da baldin eta kontseiluko presidentea eta idazkaria edo, hala badagokio, haien ordezkioak, eta kontseiluko kideen erdiak bertaratzen badira lehen deialdian.

2.– Adierazitako quoruma egon ezean, bigarren deialdian eratuko da, lehen deialdirako jarritako ordua baino ordu laurden beranduago. Bigarren deialdi horretan kontseilua zuzen eratzeko, nahikoa izango da, kontseiluko presidentea eta idazkaria egoteaz gainera, kideen herena egotea.

3.– Erabakiek balioa izan dezaten, horiek hartzeko unean, beharrezkoa izango da bigarren deialdian organoa eratzeko eskatutako gutxienerako kideak egotea bertan.

27. artikulua.– Ikasleen Kontseiluen erabakiak.

1.– Ikasleen Kontseiluak bertaratutako kideen boto baliodunen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak, arautegi honek edo Ikasleen Kontseiluak berak besterik xedatu ezean.

Bereziki, 2.7 artikuluan aurreikusitako etenaldi akademikoa egitea erabakitzeko, beharrezkoa izango da ataleko, ikastegiko, campuseko edo UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideen bi here-nek aldeko botoa ematea.

2.– Berdinketa gertatzen bada eta kontseiluko presidentek hori hausteko kalitateko botoa erabiltzen ez badu, beste bozketa bat egingo da, eta, berriro ere berdinketa geratuz gero, proposamenari uko egin zaiola ulertuko da.

3.– Aurka eta abstentzioa bozkatzan duten organoko kideak erabakien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik kanpo geratuko dira.

4.– Bozketa isilpekoa izango da kide anitzeko organoko kideren batek hala eskatzen duenean. Pertsonen buruzkoa denean, beti izango da isilpekoa.

5.– Erabakiak ikasleen ordezkari organoerri erreserbatutako iragarki oholetan jarriko dira, eta dagokion webgunean. UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren edo campusetako ikasleen kontseiluen kasuan, erabakiak, gainera, kronologikoki jasoko dira, eta horien eraginpean dauden campus, ikastegi eta ataletako ikasleen kontseilu guztiei bidaliko zaizkie, dagozkien iragarki oholetan jar ditzaten.

28. artikulua.– Etenaldi akademikorako prozedura berezia.

Etenaldi akademikoari dagokionez, arautegi honen 2.7 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, baldin eta artikulua honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen badira eta prozedurari jarraitzen bazaio.

1.– Etenaldi akademikorako deialdia egin ahal izango da, baldin eta eskubideak defendatzeko eta aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko bada.

2.– Etenaldi akademikorako deialdia egiteko beharrezkoa izango da aurreko artikuluan adierazitako gehiengo kualifikatua edukitzea. Etenaldi akademikoak UPV/EHU osoari eragiten badio, beharrezkoa izango da UPV/EHUko Ikasleen Kontseilua ere alde egotea.

3.– Erabakia idatziz jakinarazi beharko zaio organo eskudunari (dekanotzari, ikastegiko zuzendaritzari, errektoreordetzari).

4.– Etenaldi akademikoa egiteko erabakiaren jakinarazpena ikastegian edo atalean dagoen erregistro orokorrean sartu eta, gehienez, hiru egun balioduneko epean, eskaera egin duen kontseiluarekin biltzeko deia egingo du organo eskudunak, baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera. Etenaldia egiaztatzen hori gabe eginez gero, ez da, inola ere, arautegi honen 2.7 artikulua aplikatuko.

5.– Organo eskudunak beharrezko deritzen neurriak hartuko ditu etenaldi akademikorik egiten ez duten ikasleen eskubideak bermatzeko.

29. artikulua.– Ikasleen kontseiluen bileren aktak.

1.– Kide anitzeko organoaren bilera bakoitzean idazkariak akta jasoko du. Horretan, nahitaez zehaztu beharko ditu bertaratutako zerrrenda, aztergaien zerrrenda, bilera lekuaren, egunaren eta orduaren xehetasunak, eztabaiden puntu nagusiak, eta hartutako erabakien edukia.

2.– Aktan jasoko dira, organoko kideek hala eskatuta, hartutako erabakiaren aurkako botoak, abstentzioak edo botoen esanahia, baita arrazoiak ere.

3.– Era berean, kide guztiek dute beren mintzaldia edo proposamena osorik transkribatzea eskatzeko eskubidea, baldin eta, orduantxe bertan, edo kontseiluko presidentek adierazten duen epean, mintzaldia fidelki jasotzen duen testua ematen badute. Testu hori aktan jasoko da, edo haren kopia erantsiko zaio aktari.

4.– Gehiengoaren erabakiarekin ados ez dauden kideek boto partikularra helarazi ahal izango dute idatziz, berrogeita zortzi orduko epean, eta idatzi hori onartutako testuari batuko zaio.

5.– Aktak bileran bertan edo hurrengoan onartuko dira; nolana ere, idazkariak erabaki zehazten ziurtagiriak egin ahal izango ditu, aktaren onarpena gerorako utzita. Hartutako erabakiei buruzko ziurtagiriak akta onartu aurretik egin direnean, berariaz adieraziko da.

30. artikulua.– Finantزابideak.

1.– Ikasleen kontseiluek, beren zereginak betetzeko, finantزابide hauek izango dituzte:

- a) UPV/EHUren urteko aurrekontu esleipena.
- b) Modu agerian eta beren-beregi egiten dizkieten dohaintzak eta legatuak, eman zaizkien baldintza berberetan, baldin eta Ikasleen Kontseiluko kideen bi herenek onartzen badituzte.
- c) Beren jardueren bidez eskuratutako zenbatekoak.
- d) Bestelako diru sarrerak.

2.– Ikasleen Kontseilu bakoitzak erabakiko du UPV/EHUren aurrekontuetan esleitu zaion aurrekontua nola banatu behar duen.

3.– Ikastegiko aurrekontuak partida bat izango du ikastegiko ikasleen kontseiluaren jarduna ordaintzeko. Kontseilu horrek egoitzako eta ataleko ikasleen kontseiluen artean banatuko du, halakorik balego.

LAUGARREN ATALA

IKASLEEN KONTSEILUETAKO PRESIDENTEAK

31. artikulua.– Izaera.

1.– Ikasleen Kontseiluko presidentea kide bakarreko ordezkari organoa da, eta bere kontseiluaren eleduna eta ordezkari gorena izango da edozein instantziaren aurrean.

2.– Ikasleen Kontseiluko presidentea dagokion Ikasleen Kontseiluak hautatuko du, bere kideen artetik, urte natural baterako, eta epe hori amaituta, berriro aukeratu ahal izango dute.

32. artikulua.– Prozedura.

Hautatzeko prozesua honako hau izango da:

1.– Kargua utziko duen kontseiluko presidentek, hauteskunderen behin betiko emaitzak adierazi eta hamar eguneko epean, eta, bestela, Ikasleen Kontseiluko Hauteskunde Batzordeak, hurrengo hamar egunen barruan, dei egingo die ikasleen kontseiluak osatzen dituzten ikasleei kide anitzeko organoa eratzeko, eta kontseiluko presidentea, idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina edo/eta presidenteordea aukeratzeko.

2.– Jarraian, bilera berean, hautagaiak aurkeztuko dira, kasuan kasuko ikasleen kontseiluaren barne funtzionamendurako araubidean besterik ezarri ez bada. Hautagaitza bakoitzak kontseiluko presidentea, idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina eta/edo presidenteordea proposatuko ditu, eta horiek ikasleen kontseiluko kideak izan beharko dira.

3.– Hautagai zerrendak aurkeztu eta aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, hautagaiak bere programa aurkeztu ahal izango du, eta, gero, hautaketa egingo da, isilpeko eta zuzeneko bozketaren bidez.

4.– Lehen itzulian emandako boto baliodunen gehiengo osoa lortzen duen hautagaitzak irabaziko du. Ezain hautagaik lortzen ez badu gehiengo hori, bozketa jarraituak egingo dira, eta bakoitzean boto gutxien jasotzen duen hautagaitza baztertuko da. Bi zerrenda geratzen badira eta batek ere ez badu lortzen behar den gehiengoa, gehiengo sinplea lortzen duena izango da hautatua. Hautagai zerrenda bakarra edo bi aurkezten badira edo, hasieran zerrenda gehiago egon arren, bozketa egiteko egunean besteek atzera egiten badute eta bakarra edo bi geratzen badira, itzuli bakarra egingo da. Hautagai zerrenda bakarra badago, haren aldeko botoa edo boto zuria eman ahal izango da, eta horixe izango da hautatua boto baliodunen herena baino gehiago eskuratzen baditu. Bi hautagai zerrenda badaude, boto gehien lortzen dituen izango da hautatua.

5.– Bi hautagai zerrendaren arteko berdinketa gertatuz gero, bileran eginiko zozketaz erabakiko da.

6.– Bozkatzean auzirik sortzen bada, Ikasleen Kontseiluak berak ebatziko du. Hautaketaren inguruko gorabeheraren bat sortzen bada eta kontseilua ados jartzen ez bada bera ebazteko, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko Hauteskunde Batzordeak erabakiko du, Idazkaritza Nagusiari entzunda eta irizpide objektiboak eta ekitatekoak erabiliz.

33. artikulua.– Publizitatea.

1.– Hauteskunde prozesua amaitu ondoren, hautaketaren espediente osoaren kopia bat bidaliko zaio UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko Hauteskunde Batzordeari, hamabost egun balioduneko epean.

Batzorde horrek ikastegiko dekanotzara edo zuzendaritzara, campuseko errektoreordetzara edo UPV/EHUko Idazkaritza Nagusira (ikasleen kontseiluaren eremuaren arabera) bidaliko du espedientea, bai eta ikasle gaietan eskumena duen errektoreordetzara ere, jakinaren gainean egon daitezen eta gainerako ondorioetarako.

2.– Espedientean jasota geratuko dira deialdia, aurkeztutako hautagai zerrendak eta bileraren akta, idazkariak sinatuta kontseiluko presidentearen oniritziarekin.

3.– Hauteskunde prozesuaren emaitzak dagokion ikasleen kontseiluko iragarki oholetan jakinaraziko dira.

34. artikulua.– Kontseiluko presidentearen eginkizunak.

Hauek dira kontseiluko presidentearen eginkizunak:

1.– Dagokion ikasleen kontseiluaren bilerarako deia egitea eta bertan buru egotea, eta kontseiluaren ordezkari izatea UPV/EHUko gainerako organoen aurrean eta gainerako erakunde publiko edo pribatuen aurrean. Kontseiluko presidentek kasuan kasuko ikasleen kontseilua biltzeko deialdia egiten ez badu arautegi honen 45.16, 49.1.f) eta 52.7 artikuluetan aipatutako proposamenak edo ekimenak eztabaidatzeko eta, hala badagokio, onartzeko, ikastegiko idazkaritzak, campusekoak edo ikasle gaietan eskumena duen errektoreordetzak (ikasleen kontseiluaren eremuaren arabera) egingo du deialdia hilabeteko epean edo, urgentzia justifikatuz gero, 10 eguneko epean.

2.– Ikasleen Kontseiluan eztabaidak moderatzea eta gidatzea eta kideen parte hartzea antolatzea arautegi honi jarraituz eta, egonez gero, bere barne funtzionamendurako araubideari eta kasuan kasuko garapen araei lotuz.

3.– Parte hartzen duen lan batzordeen lana bultzatzea, koordinatzea, zuzentzea eta gidatzea, eta Ikasleen Kontseiluko beste kide bati eskuordetzea batzorde horietako presidentzia.

4.– Aktak eta Ikasleen Kontseiluak egindako dokumentu guztiak sinatzea eta ontzat ematea.

5.– Ikasleen Kontseiluaren jarraibideak aplikatzea eta haren erabakiak betetzea. Aurrekontua egiteko lana eta gastuaren exekuzioa zuzentzea, eta aurrekontua eta haren kontrola kontseiluari aurkeztea, onar ditzan.

6.– Ikasleen eskubideak errespetatzen direla zaintzea.

7.– Ikasleen Kontseiluak emandako beste egiteko batzuk.

35. artikulua.– Kontseiluko presidentea izateari uztea.

Kontseiluko presidentea izateari utziko zaio arautegi honen 16. artikuluan aurreikusitako kausak gertatuz gero edo zentsura mozio bat onartuz gero. Horretarako, kideen herenaren ekimenez, kasuan kasuko ikasleen kontseiluak ezohiko bilera egingo du, eta kideen gehiengo osoak ontzat ematen badu, zentsura mozioa onartuko du. Mozioarekin batera, hautagai zerrenda alternatiboa proposatu beharko da nahitaez. Zentsura mozioa onartzen bada, kontseiluko presidentek kargua utziko du, eta mozioarekin batera aurkeztutako hautagai zerrenda aldarrikatuko da automatikoki.

36. artikulua.– Kontseiluko presidente berria hautatzea.

1.– Bat-batean kontseiluko presidenterik gabe geratuz gero, presidenteordeak hartuko du kargua behin-behinean, eta hauteskundeetarako deia egingo du berehala, arautegi honek ezarritakoaren arabera.

Presidenteorderik ez badago, Ikasleen Kontseiluko kide zaharrenak hartuko du kargua behin-behinean, eta hauteskundeetarako deia egingo du berehala. Hauteskunde horietan hautatzen den presidentearen agintaldiak iraungo du aurrekoak bete beharko zuen agintaldia amaitu arte.

2.– Ez da egingo hauteskunde partzialerako deialdirik eskolarik gabeko aldietan, ez eta organoa berritzeko hiru hilabete baino gutxiago geratzen direnean ere, non eta, azken kasu horretan, Ikasleen Kontseiluko kideek ez duten premiazkotzat jo gehiengo osoz.

BOSGARREN ATALA

PRESIDENTEORDEA, IDAZKARIA ETA DIRUZAINA.

37. artikulua.– Izendapena eta kargu uztea.

Aukeratutako hautagai zerrendan horretarako izendatutako pertsonak izango dira presidenteordea, idazkaria eta diruzaina, eta Ikasleen Kontseiluko kide izan beharko dira.

Presidenteak postu horietarako pertsonak izendatu eta kargutik kendu ahal izango ditu. Izendatutako pertsonak dagokion ikasleen kontseiluko kideak izan beharko dira, eta ikasleen kontseilu horrek berretsi beharko ditu.

38. artikulua.– Presidenteordeen eginkizunak.

Presidenteordeen eginkizunak dira:

1.– Presidenteari bere eginkizunak betetzen laguntzea.

2.– Presidente ordezkatzea eginkizun organikoak betetzen hura falta denean edo gaixorik dagoenean, eta haren abstentzioa edo errekusazioa deklaratu denean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean aurreikusitako moduan.

3.– Dagokion ikasleen kontseiluko presidenteak agindutako beste edozein eginkizun.

39. artikulua.– Idazkariaren eginkizunak.

Ikasleen Kontseiluko idazkariaren eginkizunak dira:

1.– Kontseiluaren fede emailea izatea, presidentearen oniritziarekin, eta kontseiluko bileren aktak jasotzea eta sinatzea, baita dagokion ikasleen kontseiluko presidenteak laguntza eskatzen dion edozein bilerarenak ere.

2.– Kontseiluko artxiboen, liburuen, zigiluen eta erregistroaren zaintzaz eta erabilera egokiaz arduratzea.

3.– Lan batzordeen aktak, dokumentuak eta txostenak antolatzea eta sailkatzea.

4.– Ikasleen Kontseiluak agintzen dizkion beste eginkizun batzuk.

40. artikulua.– Diruzainaren eginkizunak.

1.– Diruzainak kontseiluaren administrazio eta kudeaketa ekonomikoa egingo du.

2.– Kontseiluko diruzainaren eginkizunak honako hauek izango dira:

a) Ikasleen Kontseiluko kontabilitatea eta kontu liburuak eramatea.

b) Ikasleen Kontseiluaren ondare ekonomikoa zaintzea eta babestea, eta dagozkion partida ekonomikoak administratzea, presidentearen gidaritzapean.

c) Ikasleen Kontseiluaren jardun ekonomikoen erantzukizuna hartzea.

d) Ikasleen Kontseiluak ematen dizkion beste eginkizun batzuk.

II. KAPITULUA

UPV/EHUKO IKASLEEN KONTSEILUA

41. artikulua.– Izaera.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseilua ikasleak ordezkatzeko eta koordinatzeko organo gorena da, unibertsitateko arlo guztietan, UPV/EHUko Estatutuen 20. artikulua araberan.

2.– Ikasleen Kontseiluaren egoitzak eta bulegoak UPV/EHUK horretarako utzitako lokaletan kokatuko dira, Ikasleen Kontseiluaren iritzia entzun ondoren.

42. artikulua.– Funtzionamendua.

UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak osoko bilkuran eta batzorde iraunkor baten bidez jardun ahal izango du.

43. artikulua.– Osoko bilkurako kideak.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren Osoko Bilkura ikasleen ordezkartzarako organoa da. Kide hauek izango ditu: Gobernu Kontseiluan ikasleek dituzten ordezkariak, campuseko ikasleen kontseiluetako presidentek eta ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseilu bakoitzeko ordezkari bat edo gehiago. Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluetako presidentek edo haiek beren ordezkari izendatutako kontseiluko kideak UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kide izango dira. Ordezkaritzan proportzionaltasuna mantentzeko, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko Hauteskunde Batzordeak ordezkari kopuru gehigarri bat esleituko die ikastegiko ikasleen kontseiluei, ikastegi bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera, ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluei guztira dagozkien 47 ordezkariak banatu arte.

2.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideen agintaldiak iraungo du ikasleek Gobernu Kontseiluan dituzten ordezkariak berri arte; campuseko, ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluetako presidenteen kasuan, agintaldia bukatu arte; edo dagokion ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluak ordezkariak berri arte, kolektibo horri dagozkion hauteskundeak egin ondoren.

3.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluek eta Gobernu Kontseiluan ikasleek dituzten ordezkariak edozein unetan aldatu ahal izango dituzte UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan dituzten ordezkariak.

4.– Doktorego Eskolako Ikasleen Kontseiluak ordezkari bat izendatuko du UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan. Doktorego Eskolako kontseiluaren osaera eskolaren arautegian zehaztuko da.

5.– Jatorrizko organoko idazkariak sinatutako agiriaren bidez egiaztatuko da ordezkari izatea.

44. artikulua.– Batzorde Iraunkorraren osaera.

1.– Batzorde Iraunkorrek kide hauek izango ditu:

a) Presidente, presidenteorde, idazkaria eta diruzaina. Batzorde Iraunkorrean bakoitzak postu bera izango du. Presidenteorde bat baino gehiago egonez gero, presidentek aukeratu du Batzorde Iraunkorreko kide izango dena.

b) Campuseko ikasleen kontseiluetako hiru presidenteordeak.

c) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluko ikasleen ordezkari bat, talde horretako kideek aukeratutako taldeak UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan dituen kideen artean.

d) Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluetako bost ordezkari, talde horretako kideek aukeratuak taldeak UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan dituen kideen artean.

2.– Aurreko ataleko c) eta d) hizkietan aipatutako ordezkariaren bat izendatzerik ez badago, dagokion kolektiboan hautagairik ez dagoelako, beste kolektiboko ordezkariekin osatuko da Batzorde Iraunkorra.

45. artikulua.– Eginkizunak.

UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren eginkizun nagusiak honako hauek izango dira:

1.– UPV/EHUko ikasleak ordezkatzeko beren interesekoak izan daitezkeen gai orokor guztietan, eta, horren harira, talde horrek onartutako solaskide gisa jardutea.

2.– Campuseko ikasle kontseiluak koordinatzea eta, oro har, ziurtatzea ikasleen kontseilu guztiek, bakoitzak bere eremuan eta denak koordinatuta, defendatzen dutela UPV/EHUko ikasleen

eskubideak benetan bete daitezzen. Horretarako, presidenteak UPV/EHUko ikasleen ordezkarien izen-deiturak eta helbide elektronikoko korporatiboak izango ditu bere esku, ordezkariak eragozpenik jartzen ez badute.

3.– Ikasleen jardun ildo orokorrak proposatzea eta gauzatzea unibertsitatean, ikasleen eskubideak defendatuz eta haien aplikazioa zainduz, eskubideok bete daitezela aldarrikatuz eta haietan sakontzeko lan eginez, eta ikasleen baldintza orokorrak hobetzeko ekimenak sustatuz.

4.– UPV/EHUko aurrekontuetan kontseiluari esleitutako aurrekontuaren banaketa erabakitzea, eta aurrekontu horren exekuzioa onartzea eta kontrolatzea. Era berean, diruzainak eginiko proposamenaren arabera, urteko aurrekontuaren % 5 gainditzen duten funtsen aplikazio zehatzaren aldeko txostena egingo du, gero ikasleen arloko errektoreordetzaren aurrean justifikatzeko.

5.– UPV/EHUko ikasleei zuzenean eragiten dieten unibertsitateko arautegiak onartu aurretik entzuna izatea, eta alegazioak aurkezteko aukera izatea. Batez ere, haren iritzia entzun beharko da Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko ikasleen arautegi hau, ebaluazioari buruzko arautegia eta Diziplina Prozeduraren Arautegia onartu aurretik.

6.– Ikasleei eragiten dieten ekimenak eta gatazken konponbidea kudeatzea, bere eskumenen esparruan, eta etenaldi akademiko orokorrerako deialdia egitea UPV/EHUan.

7.– Irakaskuntzarekin eta ikasketekin zerikusia duten arazoak instantzia eskudunei jakinaraztea, eta, hala behar izanez gero, Ikuskaritza Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea, ikasleen irakaskuntza eskubideak bermatzeko neurriak ezartzeko.

8.– Presidente hautatzea, eta, hala behar izanez gero, haren aurkako zentsura mozio eraikitzailea onartzea.

9.– UPV/EHUko irakaskuntza eta ikasketak kalitatekoak izan daitezzen zaintzea, eta ikasleek jaso dezaten beren titulazioen arabera dagokien prestakuntza intelektuala, kritikoa, soziala, profesionala, zientifikoa eta kulturala.

10.– Ikasleen ordezkariari beren lanean laguntzea eta haiek babestu eta koordinatzea, unibertsitatearen edozein instantzian.

11.– Ikasleei bekak eta bestelako laguntzak emateko irizpideak finkatzeko zereginetan parte hartzea, baldin eta deialdietan horrela zehazten bada.

12.– Unibertsitate hedakuntzako ekintzak antolatzen laguntzea, eta, oro har, unibertsitateko kultura, arte eta kirol jardueretik interesa piztea, horretarako ekimenak sustatuz eta babestuz.

13.– Ordezkatzen dituen pertsonen informazioa ematea, eskura dituen bitartekoen bidez. Batik bat, gobernu organoek eta ikasleen ordezkari organoek hartutako erabakiak jakinarazi eta zabalduko ditu, ikasleentzat garrantzia dutenean.

14.– Ikasleen parte hartzea bultzatzea. Bereziki, ikasleen antolakuntza kolektiboa bultzatuko du eta bere ordezkarien jarduna sustatu eta koordinatuko du gobernu, ordezkari eta laguntza organoetan, dagokien eremuan.

15.– Ordezkariek hautatzea ikasleen parte hartzerako UPV/EHUtik kanpoko organoetarako.

16.– Eztabaidatzea eta, egokitzen joz gero, onartzea gutxienez hiru ikastegitako ikasleen kontseiluek, campuseko ikasleen kontseilu batek edo UPV/EHU matrikulatutako ikasleen % 5ek aurkeztutako ekimenak.

17.– Arautegi honen osagarri izango den barne funtzionamendurako araubidea onartzea.

18.– Ikasleen Kontseiluari esleitutako espazioak erabiltzeko araubidea ezartzea, indarrean dagoen arautegiaren esparruan, eta UPV/EHUK Ikasleen Kontseiluari utzitako baliabideen, ondatsunen, instalazioen eta lokalen erabilera zuzena zaintzea.

19.– UPV/EHUn etenaldi akademiko orokorrerako deialdia egitea, arautegi honek ezarritako baldintzetan.

20.– UPV/EHUKo ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko adierazpenak egitea.

21.– Arautegi honek eta gainerakoek ematen dizkieten beste eginkizun guztiak.

46. artikulua.– Batzorde Iraunkorraren eginkizunak.

1.– Batzorde Iraunkorrek beteko ditu, alde batetik, UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluaren barne funtzionamendurako arautegiari jarraituz eskuordetuta dituen eginkizunak, eta, bestetik, kontseiluak une jakinetan eskuordetzen dizkionak. Edonola ere, UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluak ezin izango dizkio eskuordetu ez presidentea aukeratzeko eskumena, ez Batzorde Iraunkorraren kideak aukeratzeko eskumena, ez UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluaren barne funtzionamendurako arautegia onartzekoa ere.

Barne funtzionamenduko arautegiak bestelakorik adierazi ezean, edo halakorik ez badago, Batzorde Iraunkorrek eskuordetuta izango ditu UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluaren eginkizun guztiak, presidentea aukeratzekoa, Batzorde Iraunkorraren kideen aukeratzekoa eta barne funtzionamendurako araubidea onartzekoa izan ezik.

2.– UPV/EHUKo Ikasleen Kontseiluko kideei Batzorde Iraunkorrek hartutako erabakien berri eman beharko zaie berehala.

III. KAPITULUA

CAMPUSEKO IKASLEEN KONTSEILUAK

47. artikulua.– Izaera.

Campuseko Ikasleen Kontseilua campuseko ikasleak ordezkatzeko dituen kide anitzeko organoa da, eta ikasleen ordezkariak koordinatzen du, dagokion campusaren esparruan.

48. artikulua.– Osaera.

Campuseko Ikasleen Kontseilua osatuko dute Campuseko Batzarrean ikasleek dituzten ordezkariak eta campus horrek Gobernu Kontseiluan dituen ikasleen ordezkariak. Arautegi honen ondorioetarako, Giza Zientzietako titulua (Esperientzia Gela) ikastegitzat hartuko da campus bakoitzean, eta ordezkari bat izango du campuseko ikasleen kontseilu bakoitzean.

49. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Campuseko ikasleen kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) UPV/EHUren aurrekontuetan esleitu zaion aurrekontua nola banatu behar den erabakitzea.

b) Campusean kokatutako ikasleen kontseiluen jarduerak koordinatzea, babestea eta bultzatzea.

- c) Ikasleei eragiten dieten ekimenak eta gatazken konponbidea kudeatzea, bere eskumenen esparruan.
- d) Ikuskaritza Zerbitzuarekin lankidetzan jardutea, ikasleen irakaskuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzeko.
- e) Bere laguntzak onartzea, bere aurrekontuaren kargura.
- f) Eztabaidatzea eta, egokitzat joz gero, onartzea campusean kokatutako ikasleen kontseiluek edo campus horretan matrikulatutako ikasleen % 5ek aurkeztutako ekimenak.
- g) Campuseko ikasleei zuzenean eta modu eskusiboan eragiten dieten unibertsitateko arau guztiak onartu aurretik entzuna izatea, eta alegazioak aurkezteko aukera izatea.
- h) Etenaldi akademikoa egitea erabakitzea, bere eremuan.
- i) Soil-soilik bere campuseko ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko adierazpenak egitea.
- j) Barne funtzionamendurako araubidea egitea eta, egoki iritziz gero, onartzea; arautegi honetan xedatutakoa errespetatu beharko du araubide horrek, nolahi ere.
- k) Estatutuek, arautegi honek eta gainerako araudiek emandako beste eginkizun guztiak.

2.– Campus bakoitzak, UPV/EHUko organo orokorrekin lankidetzan, campus horretako ikasleen kontseiluak bultzatutako jarduerak antolatzen eta egiten lagundu behar du.

IV. KAPITULUA

IKASTEGIKO EDO ATALEKO IKASLEEN KONTSEILUA

50. artikulua.– Izaera eta araubide juridikoa.

1.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseilua ikastegiko edo ataleko ikasleak ordezkatzeko kide anitzeko organoa da.

2.– UPV/EHUko Estatutuen 22.1 artikuluaaren ondorioetarako, kapitulu honetan eta titulu honen lehen kapituluan jasotako xedapen orokorrak esparru arautegiak izango dira ikastegietako ikasleen kontseiluetarako.

51. artikulua.– Osaera.

1.– Ikastegi edo atal bakoitzeko ikasleen kontseilua osatuko dute Ikastegiko Batzarrean, Egoitzako Batzordean edo Ataleko Batzarrean ikasleek dituzten ordezkariak, dagokionaren araber, ikastegiko ikasleek Klaustroan dituzten ordezkariak eta ikastegiko edo ataleko delegatuen ordezkariak.

2.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluek barne funtzionamendurako araubidean ezarri ahal izango dute delegatuen zenbat ordezkari egongo diren kontseiluan. Edonola ere, ez dira izango ikastegiko edo ataleko batzarreko ordezkariak baino gehiago. Delegatuen ordezkari kopurua ezarritzen ez bada, ikastegian edo atalean ematen den graduako titulazioen kopuru bera izango da.

3.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluko kide bakarreko organoak presidentea, idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina eta presidenteordea izango dira.

4.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluko presidentea Ikastegiko Batzarrean, Egoitzako Batzordean edo Ataleko Batzarrean ikasleek dituzten ordezkariak hautatuko dute beren artetik, ikastegi edo ataleko ikasleen kontseilua eratu ondoren.

5.– Presidentea, edo berak bere ordezkariak hautatzen duena ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluko kideen artetik, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kide izango da.

6.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluko presidentea kontseilu horren ordezkaria izango da, ikastegiko edo ataleko gobernu organoen aurrean, bai eta unibertsitateko gainerako instantzien aurrean ere, soil-soilik ikastegi edo atalari eragiten dioten gaitan.

7.– Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluko presidente izateko hautagaitzan idazkaria eta, hala badagokio, diruzaina ere proposatuko dira.

8.– Delegatuen agintaldia urtebetekoa izango da.

52. artikulua.– Eginkizunak.

Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu:

1.– UPV/EHUren aurrekontuetan esleitu zaion aurrekontua nola banatu behar den erabakitzea.

2.– UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan dagozkion ordezkariak hautatzea. Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluko kideek hautatuko dituzte beren artetik.

3.– Campuseko batzarrerako ordezkaria hautatzea bere kideen artetik.

4.– Ikasleen ordezkari izatea ikastegiko edo ataleko organoetan.

5.– Ikasleen eskubideak betetzen direla zaintzea, eta betetzeko eskatzea.

6.– Ikasleen ordezkariak izendatzea hala dagokion organoetarako. Zehazki, ikasleek sailetan izan beharreko ordezkariak izendatzea, hau da, graduiko ikasleen eta titulazio zaharretako lehen eta bigarren zikloetako ikasleen ordezkariak (titulazio mota biak batera ematen diren bitartean), eta masterreko ikasleenak, halakorik badago.

7.– Eztatutako ikasleen eta, egokitzat joz gero, onartzea delegatuen % 20k edo ikastegian edo atalean matrikulatutako ikasleen % 5ek aurkeztutako proposamenak edo ekimenak.

8.– Etenaldi akademiko osorako edo partzialerako deialdia egitea bere ikastegi edo atalean.

9.– Irakasleen ebaluazioaren emaitzak eskatzea eta jasotzea, modu agregatuan.

10.– Soil-soilik ikastegiko edo ataleko ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko adierazpenak egitea.

11.– Irakaskuntzarekin eta ikasketekin zerikusia duten arazoak berri ematea instantzia eskudunei.

12.– Barne funtzionamendurako araubidea egitea eta, egoki iritziz gero, onartzea; arautegi honetan xedatutakoa errespetatu beharko du araubide horrek, nolahi ere.

13.– Arautegi honek eta gainerakoek ematen dizkieten beste eginkizun guztiak.

53. artikulua.– Ikasleen kontseiluek sailetan izan behar dituzten ordezkariak izendatzea.

1.– Ikastegi bakarrean irakasten duten sailetan, ikastegiko ikasleen kontseiluak izendatuko ditu graduiko eta, hala badagokio, masterreko ikasleen ordezkariak saileko kontseiluetarako.

2.– Ikastegi batean baino gehiagotan irakasten duten sailetan, ikastegiotako ikasleen kontseilu bakoitzak ordezkari bat proposatu ahal izango du saileko kontseilurako. Lekuak baino proposamen gehiago egonez gero, inplikaturako ikastegietako ikasleen kontseiluetako presidentek erabakiko dute zein ordezkari izango diren Saileko Kontseiluko kide, ikastegiok ahalik eta modurik orekatuean ordezkatzeko ahaleginduz.

V. KAPITULUA

BATZORDE PAREKIDEA

54. artikulua.– Batzorde Parekidea.

1.– Batzorde parekide bat eratuko da, aholkularitza organo gisa, eta ikasleen interesetan eragin zuzena izan dezaketen gaiak aztertzeko bildu beharko da. Batzorde horrek laguntza eta aholkua emango die ikasleei eta haien eta errektorearen gobernu taldearen arteko informazio bidea izango da. Haren txostenak ez dira ez nahitaezkoak ez lotesleak izango.

2.– Parekidetasunez osatuko dute presidentek hautatzen dituen UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko kideek eta errektorego taldeko ordezkariak. Horien artean, nahitaez egongo dira ikasleen gaietarako eskumenak dituen errektoreordea eta aztertu beharreko gaiari buruzko eskumenak dituen errektoreordea.

3.– Batzordea, gutxienez, sei hilabete behin bilduko da, baina maizago biltzeko aukera izango du, kideen herenak hala eskatzen badu.

IV. TITULUA

IKASLEEN ELKARTEAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

55. artikulua.– UPV/EHUko ikasleen elkarten kontzeptua.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen elkarteak izango dira titulu honen arabera eratutako guztiak, eta, parte hartze eta ordezkaritza demokratikoko printzipioen arabera, honako helburu hauek dituztenak: goi mailako hezkuntza, kulturaren sustapena, unibertsitateko eta kulturako ondasunen defentsa, garapen zientifikoa, kulturala eta artistikoa, jardun profesionalean aritzeko prestakuntza eta horien antzekoak, UPV/EHUko Estatutuen eta indarrean dagoen gainerako ordenamendu juridikoaren arabera.

UPV/EHUko ikasleen elkarteek unibertsitateko organoekin lankidetzan jardun ahal izango dute, kasu bakoitzean zehazten den moduan.

Elkarten erregistroaz arduratzen den errektoreordetzak horien barne sailkapena egin ahal izango du.

56. artikulua.– Araubide juridikoa.

Ikasleen elkarteak beren estatutuen, arautegi honen eta aplikatu beharreko gainerako arauen bidez gobernatuko dira.

Arautegi honetatik kanpo geratzen dira elkarte alderdikoak, erlijiosoak eta irabazi asmodunak, baita UPV/EHUren helburuen kontra daudenak edo unibertsitateko kideen eskubideren bat urratzen dutenak ere.

II. KAPITULUA

JARDUN EREMUA, PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, EGOITZA ETA LOKALAK

57. artikulua.– Jardun eremua.

Ikasleen elkarten jardun eremua UPV/EHU da. Elkarteek ikastegi batean edo gehiagotan jardungo dute, eta, hala behar izanez gero, unibertsitateko beste egitura batzuetan. Unibertsitate eremutik kanpo ere jarduerak egin ahal izango dituzte, betiere, horiek modu egokian egin badaitezke.

58. artikulua.– UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa aitortua izateko gutxienerako baldintzak.

1.– Elkarte bat UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa aitortua izateko, beharrezkoa izango da alde zuzenetik inskribatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan edo elkarten beste erregistro publiko batean.

2.– Era berean, UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa aitortua izateko, elkarteak, gutxienez, bost kide izan beharko ditu, eta errespetatu beharko du, edonola ere, honako osadera hau:

- a) Elkarteko kideen % 70, gutxienez, UPV/EHUko ikasleak edo ikasle ohiak izan beharko dira.
- b) Edonola ere, elkarteko kideen % 40 UPV/EHUko ikasleak izan beharko dira.

3.– Zuzendaritza batzordean ere bete beharko dira UPV/EHUko ikasle edo ikasle ohiaren portzentaje horiek.

Bestalde, zuzendaritzako kideak ezin izango dira aldi berean helburu sozial bera edo antzekoa daukan beste elkarte bateko zuzendaritzako kideak izan.

4.– UPV/EHUko ikasleak hartuko dira titulu ofizialetan, berezko tituluetan edo bizitzan zeharreko prestakuntzako beste ikasketa espezifiko batzuetan matrikulatuta dauden pertsona guztiak.

59. artikulua.– Egoitza soziala.

UPV/EHUK aitortutako ikasleen elkarteek UPV/EHUn izango dute beren egoitza soziala. Salbuespen gisa eta behar bezala justifikatuta, egoitza soziala UPV/EHUtik kanpo edukitzea onartuko da; alabaina, jakinarazpenak UPV/EHUko postontzira bidali beharko dira. Egoitza sozialaren aldaketa ikasleen arloko errektoreordetzari jakinaraziko zaio, eta hark onartu egin beharko du.

III. KAPITULUA

ELKARTE BAT UPV/EHUKO IKASLEEN ELKARTE AITORTUA BIHURTZEKO PROZEDURA ETA INSKRIBATZEAK SORTZEN DITUEN ESKUBIDEAK

60. artikulua.– Elkarte bat UPV/EHUko Elkarten Erregistroan inskribatzeko prozedura.

1.– UPV/EHUko Ikasleen Elkarten Erregistroan inskribatzeko, elkarteak alde zuzenetik inskribatuta egon beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan edo elkarten beste erregistro publiko batean.

2.– Elkarte bat UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko –Ikasleen Errektoreordetzaren menpe dago erregistroa–, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Elkartea EAeko Elkarteen Erregistroan edo elkarteen beste erregistro publiko batean inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia.
- b) Elkarteko kideen kopurua. UPV/EHUko ikasle diren bazkideen zerrenda eta, hala badagokio, UPV/EHUko ikasle ohiena, izena, abizenak eta NAN zenbakia adierazita. Horretaz gain, UPV/EHUko ikasle izatearen egiaztatzea (matrikula agiria) edo UPV/EHUko titulu ofizialaren edo berezko tituluaren kopia, kasuaren arabera.
- c) Zuzendaritza Batzordeko kideen izenak, eta haien kokalekua, telefonoa eta harremanetarako helbidea. Horretaz gain, UPV/EHUko ikasle izatearen egiaztatzea (matrikula agiria) edo UPV/EHUko titulu ofizialaren edo berezko tituluaren kopia, kasuaren arabera.
- d) Dagokion ikastegiaren edo campusaren txostena, elkartearen egoitza ikastegi batean edo UPV/EHUko lokal batean jartzeko eta aurreko artikuluan aipatutako gainerakorako. Eskaera aurkeztu eta hilabeteko epean aipatutako txostena aurkeztu ezean, letra honen eskakizuna gainditzeko nahikoa izango da behar bezala erregistratutako eskaera aurkeztea.
- e) Elkartearen jardun eremuaren arabera, dagokion ikasleen kontseiluaren txostena. Eskaera aurkeztu eta hilabeteko epean aipatutako txostena aurkeztu ezean, letra honen eskakizuna gainditzeko nahikoa izango da behar bezala erregistratutako eskaera aurkeztea.
- f) Jardueren programa:
- g) Elkartea UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko eskaera normalizatua.

3.– Prozedura amaituko da elkartea UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan inskribatzean edo ikasleen arloko errektoreordetzak eskaria ezesteko erabaki arrazoitua ematean. Bi kasuetan eskatzaileari erabakia jakinaraziko zaio, gehienez hiru hilabeteko epean, aurreko ataleko g) letran aipatutako eskaera normalizatuan horretarako adierazitako lekuan.

4.– Elkartea UPV/EHUko Elkarteen Erregistroan inskribatzeko eskaria ezesten duen erabakia-
ren aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahalgo zaio errektoreari, hilabeteko epean.

61. artikulua.– Elkartea inskribatzean sortzen diren eskubideak.

1.– Elkarte bat UPV/EHUko Ikasleen Elkarteen Erregistroan inskribatzeak eskubidea ematen du webgune bat, posta elektronikoa bat eta unibertsitateko lokalen batean armairu giltzadun bat izateko, ahal dela «ikasletxe» batean.

2.– Ikastegi eta campusetako premien memoriek toki bat aurreikusi beharko dute bere eremuan egon daitezkeen elkarretearako.

3.– Dirulaguntzak eman ahal izango dira, zehaztuko diren baldintzen arabera, elkarteen jardueretarako eta ikasleek haietan parte hartzeko, berdintasunaren eta bazterkeriarik ezaren printzipioa errespetatzen badute. UPV/EHUK horretarako partidak bideratuko ditu bere aurrekontuetan.

IV. KAPITULUA

UPV/EHUKO IKASLEEN ELKARTE IZATEN JARRAITZEA

62. artikulua.– UPV/EHUKo ikasleen elkarte izaten jarraitzea.

1.– UPV/EHUKo ikasleen elkarte izaten jarraitzeko, elkarteek UPV/EHUKo Elkartearen Erregistroan inskribatzeko behar diren eskakizunak betetzen jarraitu beharko dute. Hori egiaztatzeko, elkarte guztiek, bi (2) urtean behin eta lehen lauhilekoan, ikasleen arloko errektoreordetzari honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dizkiote:

a) Elkarteak aurreko bi ikasturteetan egindako jardueri buruzko memoria bat, non bereziki nabarmenduko diren unibertsitate organoren batek diruz lagundutako jarduerak edo proposamenak.

b) Elkarteko burua, idazkaria eta zuzendaritza batzordeko kideak UPV/EHUKo ikasleak direla frogatzen duten dokumentuak (matrikula agiria), eta ikasle ohien kasuan, UPV/EHUKo titulu ofizialaren edo berezko tituluaren kopia. Era berean, bazkide guztien zerrenda eguneratua aurkeztu beharko da, eta ikasle edo ikasle ohia izatearen agiriak. Elkarteak UPV/EHUKo ikasleen elkarte gisa erregistratuta jarraitzeko, arautegi honen 58. artikuluan ezarritako gutxieneko eskakizunak bete beharko dira.

Elkartearen liburuak agintari akademikoen eta publikoen esku egongo dira.

2.– Estatutuetan edo zuzendaritza batzordean eginiko aldaketa guztiak ikasleen arloko errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio hilabeteko epean, eta hark arautegi honekin bat datozen egiaztatuko du. Aldaketak arautegiarekin bat ez badatoz, inskripzioa ezeztatzeko prozedura hasiko da.

63. artikulua.– Eskakizunak ez betetzea.

Titulu honetan ezarritako eskakizunetakoren bat bete ezean, elkartearen ohartarazteko espediente bat irekiko da, eta hilabeteko epea emango zaio akatsak zuzen ditzan. Hilabetea igarota akatsak zuzendu ezean, elkarteak ezin izango du UPV/EHUKo laguntzarik eskatu, akatsak zuzendu arte. Urtebete igarota ez baditu akatsak zuzendu, UPV/EHUKo Elkartearen Erregistroan behin betiko baja emango zaio, eta, horrekin batera, aitortutako eskubideak galduko ditu, bai eta laguntzak ere, halakorik esleituta balu.

Hilabetea igarota frogatuko balitz elkarteak ez duela jardunik, UPV/EHUKo Elkartearen Erregistroan behin betiko baja emango zaio, ikasleen arloko errektoreordearen erabaki arrazoituaren bidez, eta, horrekin batera, aitortutako eskubideak galduko ditu, bai eta laguntzak ere, halakorik esleituta balu. Jardun eza frogatutzat joko da, besteak beste, elkartearen egoitza dagoen ikastegiko zuzendaritzari edo campuseko errektoreordetzari kontsulta egin ondoren, argi eta garbi ikusten denean elkarteak ez duela jardunik.

Era berean, behin betiko baja emango zaio elkarteari elkarteak berak hala eskatzen badu, zuzendaritza batzordeak horren alde hartutako erabakiaren akta aurkeztuta.

V. KAPITULUA

IKASLEEN ELKARTEEK PARTE HARTZEKO MEKANISMOAK

64. artikulua.– Jarduerak.

1.– Unibertsitateko bizitzan parte hartzeko, ikasleen elkarteek beren intereseko jarduerak egingo dituzte, Estatutuen 4. artikuluan aurreikusitako UPV/EHUn helburuetakoren bat lortze aldera.

2.– Parte hartzea, batez ere, elkarteek antolatutako jarduera zientifiko, kultural, artistiko edo bestelako bidez bideratuko da, eta jarduera horiek baliagarriak izan beharko dira ondare intelektuala, humanistikoa, kulturala eta zientifikoa aberasteko, bai eta ikasleen eta, oro har, euskal gizartearen ongizatea, prestakuntza osoa eta garapena bultzatzeko ere.

3.– Ikasleen elkarteek UPV/EHUn eta kanpoan egiten dituzten jarduerak antolamendu juridikoa erabat errespetatu beharko dute. UPV/EHUko ikasleen elkarteek unibertsitateko elkarte diren aldetik antolatzen dituzten jarduera guztien berri eman beharko diote UPV/EHUri, eta hark baimendu egin beharko ditu, hala badagokio. Arautegi honen 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiez gainera, elkarte batek UPV/EHUko ikasleen elkarte izateari utziko dio antolamendu juridikoaren arau hauste larriengatik zehapen irmo bat jasoz gero, edo antolamendu juridikoaren arau hauste arinenengatik bi zehapen irmo edo gehiago jasoz gero.

4.– UPV/EHUn eremuan edozein jarduera egin aurretik, elkarteko kideei nahiz jende guztiari zuzendua, UPV/EHUko ikasleen elkarteek baimena eskuratu beharko dute erabili nahi dituzten guneak erabiltzeko, titulu honetan ezarritako baldintzetan.

65. artikulua.– Ikasleen erakundeetan parte hartzea.

1.– UPV/EHUko ikasleen elkarte gisa erregistratutako elkarteek sareetan edo konfederazioetan sartzeko eskubidea izango dute, edozein arlotan.

2.– UPV/EHUK laguntza emango du, bere eskumenen esparruan eta dituen bitartekoen araber, ikasleen elkarteak erakunde horietan sar daitezen.

VI. KAPITULUA

IKASLE OHIEN ELKARTEAK

66. artikulua.– UPV/EHUko ikasle ohien elkarteak.

1.– UPV/EHUko ikasle ohien elkartetzat hartuko dira Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle izandako bost kide dituztenak gutxienez, baldin eta kide horiek elkartekide guztien % 70 badira. Horrez gain, arautegi honen 58. artikuluan eskatutako baldintzak bete, eta 55. artikuluan aurreikusitako helbururen bat lortzeko xedea izan beharko dute. Zuzendaritza batzordeko kideak, edonola ere, unibertsitateko ikasleak edo ikasle ohiak izan beharko dira, eta ezin izango dira aldi berean ikasleen edo ikasle ohien beste elkarte bateko zuzendaritza batzordeko kideak izan.

Artikulu honen ondorioetarako, ikasle ohiak izango dira UPV/EHUko titulu ofizialen bat edo berezko tituluren bat dutela egiaztatzen duten pertsonak.

2.– UPV/EHUko ikasle ohien elkarteek unibertsitate honen irudia sustatuko dute, eta aktiboki lagunduko dute egresatuak laneratzeko, unibertsitatara ikasle berriak erakartzeko, eta jarduera kulturalak edo interes sozialekoak antolatzen. Ikasle ohien elkarteek unibertsitatea xede duten

mezenasgo jarduerak bultzatuko dituzte, baita unibertsitatearen eta gizartearen arteko loturak estutzeko balio duen beste edozein jarduera ere.

3.– UPV/EHUK laguntza emango du ikasle ohien elkarteek nazioartean oihartzuna izateko, horien arteko sareak garatzeko eta unibertsitateen arteko jarduerak egiteko. Horretarako, UPV/EHUK ehualumni egitura sortu du, ikasle ohien sarea.

4.– Unibertsitateak eskura dituen bitartekoen arabera, ikasle ohien elkarteek arautegi honen 55. artikuluan aurreikusitako eskubideak izango dituzte, horiek ikasleen elkarteei bermatu ondoren. Dena den, elkarte horiek bultzatzeko beste neurri batzuk ere hartu ahal izango dira.

5.– Gainerakoan, ikasle ohien elkarteei titulu honetan adierazitakoa aplikatuko zaie, V. kapituluaren ezarritakoa izan ezik. Bestalde, lau urtean behin egiaztatu beharko dute betetzen dituztela inskripzioarako eskatzen diren baldintzak.

V. TITULUA

IRAKASKUNTZAREN EBALUAZIOA

I. KAPITULUA

IKASLEEN EBALUAZIOA

67. artikulua.– Printzipio orokorrak.

UPV/EHUKo Estatutuetako 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, titulu honetan ikasleak ebaluatzeko araudiak errespetatu beharreko printzipioak ezarriko dira, ikasleen errendimendu akademikoa era objektiboan ebaluatuko dela eta kalifikazioak berrikusteko eskubidea bertutuko dela ziurtatzeko. Xede horrekin, ikasleen errendimendu akademikoaren ebaluazioa irizpide publiko eta objektiboen arabera egingo da, eta, ahal dela, etengabeko ebaluazioa egingo da; izan ere, etengabeko ebaluazioa hezkuntzaren erantzunkidetasunerako bitartekoa da, eta irakas-kuntza-ikaskuntza prozesuaren elementu bat, ikasle bakoitzari bere ikaskuntza prozesuaren berri ematen diona.

68. artikulua.– Ebaluazio metodoak.

Gardentasuna eta ekitatea bermatzearren, ebaluazio sistema edo tresna bakoitzean erabilitako irizpideak argi eta garbi azaldu eta argitaratu beharko dira.

Edonola ere, aurretik ezarritako irizpideen arabera egin beharko da beti ebaluazioa.

69. artikulua.– Ebaluazioaren edukia.

1.– Ikasleek ekitatez eta zuzentasunez ebaluatuak izateko eskubidea dute, eta jasotako irakas-kuntzaren mailaren arabera. Irakasgaiaren edo gaiaren ebaluazioa ezin izango da egin irakasleak eman ez dituen edukiei buruz, hasierako programan horiek jasota egon arren.

Ekitatea bermatzearren, irakasgai edo gai bateko irakaskuntza gidetan ebaluazio irizpide komunak ezarriko dira ikasle talde guztietarako.

2.– Ebaluazio probak egokitu beharko dira dibertsitate funtzionala duten ikasleen premietara, eta sailek eta ikastegiekin horretarako behar diren moldaketak egingo dituzte metodologiari, denborari eta espazioei dagokienez. Egokitzapen horiek gorabehera, proben edukia eta eguna ez dira aldatuko.

3.– Ikasleek eskubidea izango dute ebaluazio probak egin izanaren ziurtagiria jasotzeko, probak amaitu ondoren.

4.– Ikasleak iruzur egingo balu ariketaren batean, «suspentso» kalifikazioa izango luke ariketa horretan, izan litzakeen bestelako erantzukizunez gain.

70. artikulua.– Ebaluaziorako lanak eta praktiken memoriak.

1.– Lanak eta praktiken memoriak entregatzeko data ikasleekin hitzartuko da, eta zereginok proposatzen diren une berean zehaztuko da. Nolanahi ere, haiek ebaluatzeko data behar besteko aurrerapenez ezarriko da, ikasleak berme guztiekin aurkez daitezzen ebaluazio probara, eskubide duten bezala.

2.– Unibertsitateak porfolio edo dosierraren erabilera bultzatuko du. Euskarri material bakarra duten praktiken memoriak eta lanak hurrengo ikasturtera arte gordeko ditu irakasleak. Ikasketen gestiorako arautegiak horretarako kontuan hartu beharreko data ezarriko du, baita ikasleari emango zaion epea ere memoriak eta lanak itzultzea eskatzeko. Epe hori igarotakoan lanak edo memoriak itzultzeko eskatu ez badu edo jaso ez baditu, suntsitu egingo dira.

3.– Lanak eta memoriak xede hertsiki akademikoez bestelako helburuetarako osorik edo zatika argitaratu, erreproduzitu edo erabili nahi badira, egilearen edo egileen berariazko baimena beharko da, jabetza intelektualaren legeriari jarraikiz.

4.– Karrera amaierako proiektuak, gradu eta master amaierako lanak eta doktorego tesiak dagozkien arautegi espezifikoen arabera arautuko dira.

5.– Lan horien ondorioz eginiko argitalpenak, bereziki doktoregoari lotutakoak, jabetza intelektualaren araudiari lotuko zaizkio.

71. artikulua.– Erantzun zuzenei buruzko informazioa.

Ebaluazioa hezigarria izan beharko da, eta ikasleei informazio eta argibide egokiak eskaini beharko dizkie gaitasunetan lortu duten mailaz eta ikaste prozesuan egin beharreko hobekuntzez. Ebaluazio proba bakoitzaren ondoren, saileko irakasleek galderen erantzun zuzenak jakinaraziko dituzte, ikasleek probari ahalik eta etekin handiena atera diezaioten.

72. artikulua.– Kalifikazioen argitalpena eta kalifikazioen berrikuspena irakaslearen edo epaimahaien aurrean.

1.– Kalifikazioen argitalpena. Irakasle arduradunak irakasgaiaren edo gaiaren azken kalifikazioak argitaratuko ditu, aplikagarria den ebaluazio- arautegian ezarritako moduan eta epean. Informazio hori eta kalifikazioak berrikusteko tokiak irisgarriak izan beharko dira desgaitasuna duten ikasleentzat. Edonola ere, argitaratze data argi agertu beharko da, kalifikazioak berrikustea eskatzeko epea zenbatzeari begira. Berrikuspena pertsonala eta banakakoa izango da, eta ikasleari behar diren azalpenak emango zaizkio, ahoz, kalifikazioaren inguruan, kasuan kasuko egokitzapenak eginda desgaitasuna duten ikasleentzat. Ebaluazioa epaimahai batek egiten badu, ikasleak eskubidea izango du bere ariketak epaimahaiaren aurrean berrikusteko. Edonola ere, kalifikazioak berrikusteko epea lehenago amaituko da ikasketen gestiorako arautegian aktak ixteko eta argitaratzeko ezarritako epea baino.

2.– Irakasleek kalifikazioak bidaltzea.

Aktaren ardura duen irakasleak dena delako arrazoiengatik sinatu ezin balu, irakasgaiaren edo gaiaren ardura duen sailak ordezkari irakasle bat izendatuko du akta sinatzeko.

II. KAPITULUA

IRAKASKUNTZA BETEBEHARRAK EZ BETETZEA

73. artikulua.– Irakaskuntza betebeharrak bete ezean hartu beharreko neurriak.

1.– Ikastegiko eta saileko zuzendaritzek gainbegiratu beharko dute, Ikuskaritza Zerbitzuarekin elkarlanean, irakasleek beren irakaskuntza betebeharrak betetzen dituztela.

2.– Dekanotzek eta ikastegiko zuzendaritzek, berriz, kalifikazioak aurkezteko epeak betetzen direla egiaztatuko dute. Hala badagokio, epeak betetzeko eskatuko diete irakasleei, eta, bete ezean, horren berri emango diote irakasleen arloko errektoreordetzari, erantzukizunak eska ditzan.

3.– Arautegi honen 1. eranskinean jasota dago Kexak Izapidetzeko Protokoloa, ikasleek jarraitu beharrekoa irakasleen kontrako kexarik jarri nahi izanez gero irakaskuntza betebeharrak ez betetzeagatik.

4.– Irakaskuntza oztopatzen duen egoera baten berri izan bezain laster, sailtako edo ikastegietako zuzendaritzek, edo araei jarraikiz haien ordezkari izendatutakoek, behar diren neurriak hartuko dituzte normaltasunera itzultzeko. Bereziki, dekanoei eta zuzendariak behar diren neurriak hartuko dituzte, ahal bezain laster eta lehentasunez, proba ofizialak aurreikusitako egunetan egin daitezkeen.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Inskribatutako elkarteak.

Arautegi hau indarrean sartzen den egunean elkarten erregistro publiko batean inskribatuta dauden baina 52. artikuluan a) eta b) letretan adierazitakoa betetzen ez duten elkarteak UPV/EHUko Elkarten Erregistroan inskribatzeko eskatu ahal izango dute, baldin eta bost kide, gutxienez, UPV/EHUko ikasleak badira. Halakoetan, UPV/EHUko elkarte gisa inskribatzen direnean, «UPV/EHUko atala» adieraziko dute, eta kasuan kasuko elkartearen jarduerak UPV/EHUko ikasle diren elkartekideek egiten dituztela ulertuko da.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honen 2.16, 17.7, 19.4 eta 61.2 artikuluek aipatzen dituzten eskubideak arau hauen bitartez gobernatuko dira:

1.– Unibertsitateko espazioak erabiltzeko baimena lortu ahal izango dute UPV/EHUko matrikulatutako ikasleek, helburuak honako hauek badira:

- Irakasleen ordezkari organoen zereginak betetzea. Helburu horretarako, espazioak erabiltzeko baimena organo horietako kideei besterik ez zaie emango.
- Ordezkaritza organoek, irakasleen elkarteak edo ikasle talde batek (behar bezala identifikatutako eragile batekin) antolatutako bestelako jarduerak egitea, baldin eta lotuta badaude kultura eta jakintzaren transmisioarekin, hori unibertsitatearen xedeetako bat den aldetik.

2.– Ez da espazioak erabiltzeko baimenik emango honako kasu hauetan:

- Proposatutako jarduera Euskal Herriko Unibertsitatearen helburuen aurkakoa bada, UPV/EHUren Estatutuen 4. artikulua kontuan hartuta.
- Ekitaldia eginez gero, pertsonak edo ondasunak arriskuan egon daitezkeela pentsatzeko arrazoi sendorik badago.

3.– Espazio bat erabiltzeko baimena jaso duten ikasleek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Utzitako aretoak behar bezala eta arduraz erabiltzea, egiturako elementurik eta hornikuntzarik inola ere aldatu gabe, eta unibertsitatearen ondarearen edo pertsonen kalterako izan daitekeen ezer egin barik.
- Areto bera darabilten gainerako ikasleen edo unibertsitateko kideen jarduna eragotzi edo oztopa lezakeen ezer ez egitea.
- Espazioak ikastegia zabalik dagoen orduetan erabiltzea, ikastegiak beste aukerarik eskaintzen ez badu, xedapen honen 8. puntuaren arabera.
- Ondare edo pertsonentzako arriskurik antzemanaz gero, unibertsitateko agintariei jakinaraztea eta laguntza eskaintzea.

4.– Espazioak erabiltzeko baldintzak.

Espazio edo areto jakin batzuk erabiltzeko baimena jaso duten ordezkari organoek, ikasleen elkarteek edo pertsonak errespetatu beharko dituzte, betiere, haien jabe diren unibertsitate organoek ezarritako baldintzak, zeinak prebentzio, segurtasun eta garbitasun irizpide orokorren arabera izango baitira.

5.– Prozedura.

1) Campusetako espazioak erabiliz gero, arau hauek kasuan kasuko campusak ezarritakoen osagarri izango dira.

2) Prozedura ordezkari organoaren, ikasleen elkartearen edo talde sustatzailearen ekimenez hasiko da, eskabidea aurkeztuta. Ordezkaritza organoko edo elkarteko buruak edo talde sustatzaileko ikasle batek aurkeztuko du, organo eskudunari zuzenduta.

Jarduera puntualen kasuan, ekitaldia hasi baino 15 egun lehenago aurkeztu beharko da eskabidea.

3) Honako hauek dira organo eskudunak, kasuaren arabera:

- Ikastegiko dekanotza edo zuzendaritza, erabili beharreko aretoa ikastegi batena bada.
- Campuseko errektoreordea, aretoak campusenak direnean, edo jardueraren eremua handiagoa bada erabili beharreko azpiegitura duen ikastegia baino, ikastegiak berak hala eskatuta:

4) Eskabidean adierazi beharko da:

- Baimenaren helburu den jarduera (ordezkari organoek edo ikasleen elkarteek edo ikasle talde batek sustatutako jarduera iraunkor, puntual edo aldizkakoak).
- Ikasle talde batek eskatutako jarduera puntual edo aldizkakoak direnean, taldeko kideen izenak.
- Jarduera puntual edo aldizkako kasuan, deskribapena, data eta ordutegia, eta jarduerarako behar den espazioaren ezaugarriak.

5) Eskabidea jasota, organo eskudunak erabakiko du erabilera bat datorren xedapen gehigarri honen 1. eta 2. ataletan jasotakoarekin, bai eta espaziorik dagoen, eskabidean adierazitako

ezaugarriak dituenik. Edozein kasutan, eskabidearen inguruko argibideak eskatu ahal izango zaizkie egileei.

6) Aurreko baldintzak betez gero, organo eskudunak baimena eman beharko du eskabidea egin denetik hamabost eguneko epean gehienez. Jarduerarako utziko duen aretoaren ezaugarriak eta bera erabiltzeko baldintzak zehaztuko ditu, eskarian adierazitakoez bestelakoak badira. Baimena ukatuz gero, arrazoitu egin beharko da.

6.– Baimena kentzea.

1) Unibertsitateak jakiten badu edo arrazoiz susmatzen badu espazioa erabiltzen ari direla baimendu gabeko zerbaiterako, edo baimenean zehaztutako baldintzak ez direla betetzen ari, baimena kendu ahal izango die eskatzaileei, haiei entzun eta gero.

2) Ikasleen elkarten kasuan, arauak ez betetzeak ekar lezake Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleen elkarte izateari uztea, arautegi honen 63. artikulua aplikatuz.

3) Baimenaren baldintzak ez betetzeagatik ondare eta pertsonentzako arriskurik sortuko balitz edo unibertsitatearen berezko jarduna eragotziko balitz, unibertsitateak bestelako tramiterik gabe ken lezake baimena, eta interesdunek berehalaxe utzi beharko lukete espazioa, kalte ordainerako eskubiderik gabe.

4) Era berean, unibertsitateak espazioak erabiltzeko baimena kendu ahal izango du, edo erabiltzeko baldintzak aldatu, areto horiek irakaskuntzarako, ikerketarako edo unibertsitateak berezko dituen bestelako zereginetarako behar baditu.

7.– Erantzukizunak.

Ordezkaritza organoak, elkarteak eta ikaste taldeak izango dira erantzule aretoetan kalte edo galerarik gertatzen bada erabilera okerraren ondorioz.

Beraz, bestelako erantzukizunak erantzukizun, beren gain hartu beharko dute erabilera okerraren ondorioz unibertsitatearen ondare eta instalazioei egindako kalteen konponketa.

Horretarako, unibertsitateak eskabidea sinatu duen pertsonarengana joko du eta hark gertatutakoaz duen informazio guztia eta unibertsitateak eskatzen dion gainerakoa eman beharko dio erakundeari.

Ikasleen elkarte, ordezkari organo edo talderen baten izenean egin bada erabilera okerra, unibertsitateak gutxitu ahal izango dio laguntza edo aurrekontu partida.

8.– Bigarren xedapen gehigarriaren garapena.

Ikastegiek, beren beharren arabera, bigarren xedapen gehigarri honen artikulua garatu eta zehaztu ahal izango dituzte, ikastegiko ikasleen kontseiluari entzun ondoren.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluak, bere kideen artetik, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren Hauteskunde Batzordea izendatuko du, arautegi honetan aurreikusitako eginkizunak izango dituen. Batzorde hori osatuko dute UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko presidentek eta idazkariak (batzordeko berezko kideak izango dira) eta hiru campusetako ordezkari banak, zozketaz hautatuak UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko campus bakoitzeko kideen artetik.

Hauteskunde Batzordeko kideak ezin izango dira egon batzordeak jardun behar duen hauteskunde prozesuetako zerrrendetan. Zerrrendetan egonez gero, haien ordezkioak aukeratuko dira zozketa bidez UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko gainerako kideen artetik.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Elkarteak arautegira egokitzea.

Gaur egun UPV/EHUn diharduten elkarteek sei hilabeteko epea izango dute arautegi berrira egokitzeko, hau indarrean sartzan den egunetik. Horretarako, aipatutako dokumentuak aurkeztu beharko dituzte ikasleen arloko errektoreordetzan. Adierazitako epea igarotakoan arautegi hone-tara egokitu ez badira, UPV/EHUko ikasleen elkarte izateari utziko diote.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Azken urte naturalean eraturako ikastegiko eta ataleko ikasleen kontseiluak osaera berriarekin eratu beharko dira, eta beren kide bakarreko organoak aukeratu beharko dituzte 2023ko abenduaren 31 baino lehen.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Campuseko ikasleen kontseiluek hilabeteko epea izango dute, arautegi hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eratu eta kide bakarreko organoak hautatzeko.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA

Ikastegiko eta ataleko ikasleen kontseiluek hilabeteko epea izango dute, arautegi hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluan dagozkien ordezkari gehigarriak aukeratzeko eta izendapenak bidaltzeko UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko Hauteskunde Batzordera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Antolamendu akademikorako arautegiek ikasketen plangintzari eta ebaluazioari buruzko aurreikuspenak garatu ahal izango dituzte, betiere arautegi honetan xedatutakoa errespetatuz.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean sartzea.

Arautegi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da 2012ko ekainaren 21eko bileran Gobernu Kontseiluak onartutako UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluaren Arautegia (2012ko uztailaren 31ko EHAA, 148. zk.). Era berean, indargabetuta gelditzen dira arautegi honekin bat ez datozen maila bereko edo apalagoko arautegi guztiak.

1. ERANSKINA

KEXAK IZAPIDETZEKO PROTOKOLOA

UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuaren Arautegiak (2008ko ekainaren 20ko EHAA, 117. zk.) zerbitzu horren prozedura azaltzen du 4. artikuluan. Honela dio artikulur horren bigarren zenbakiak: Ikuskaritza Zerbitzuak Jardute Planari jarraikiz jardungo du, edo unibertsitateko kideren batek irakasleen irakats betebeharren gainean jarritako salaketa edo kexen ondorioz, oinarrituak badira. Salaketa faltsua izan bada, edo asmo txarrez egindakoa, erantzukizuna eskatuko da.

Arautegi horretan jasota ez dagoenerako Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituko zaio (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa).

Kexak idatziz egingo dira, kexen protokolo honi erantsitako eredu arautuaren arabera.

Kexa ahal bezain zehatza izan beharko da; bertan, gorabeheraren data eta ordua emango dira, eta ez da adierazpen orokorrik egingo (hala nola «ez dator», edo «ez da etortzen» edo «ez da egoten»).

Kexa jartzeko eredu arautua bete beharko da, eta gero pauso hauek eman:

1.- IKASTEGIARI JAKINARAZTEA:

Ikastegiak kexa nori jarri duen jakin ez dezan, ikasleak ikastegiko edo campuseko ikasleen kontseiluko presidenteari edo UPV/EHUko Ikasleen Kontseiluko presidenteari bidali ahal izango die. Hala, horrek bere egingo du, eta gutun bat bidaliko die, kexaren dokumentuarekin batera, ikastegiko organoei (zuzendaritza, dekanotza), ikastegiaren eremuan kexak erantzun bat jaso dezan. Ikasleen Kontseiluak Datuak Babesteko Legearen arabera erabili beharko ditu ikasleak emandako datuak. Ikasleen kontseiluetako presidenteei jasotako informazioa aztertzea gomendatzen zaie; izan ere, kexak bere egitean eta salatzaile gisa jardutean, erantzuleak izango dira, salaketa iruzurtirik gertatuz gero. Ikastegiak, bi egun baliouduneko epean, erantzun bat eman beharko dio kexa bere egin duen Ikasleen Kontseiluko presidenteari, edo, hala badagokio, kexa zuzenean jarri duen ikasleari. Kexa eskoletara edo ebaluazio proba ofizialetara ez joateagatik jarri bada, ikastegiak, gehienez, 24 orduko epea izango du kexa egiaztatzeko eta erantzuteko. Horrez gain, irakaskuntza normaltasunera bueltatzeko behar diren neurriak hartuko dira lehenbailehen, Ikasleen Arautegiko 73. artikuluen arabera.

2.- IRAKASLEEN ERREKTOREORDETZARI JAKINARAZTEA.

Aurreko atalean ezarritako epean ikastegiak erantzun ezean edo emandako erantzun egokia izan ezean, ikasleak edo dagokion Ikasleen Kontseiluko presidenteak (kexa bere egin badu) irakasleen arloko errektoreordetzari bidali ahal izango dio kexa, eranskineko eredu arautuaren arabera, Irakasleen Zuzendaritzapean dagoen Ikuskaritza Zerbitzuak izapidetu dezan.

Prozedura honetan biltzen diren datuen tratamendua UPV/EHUko tratamendu jardueren erregistroan gordeko da, eta esteka honetan ikusi ahal izango da: <https://www.ehu.eus/babestu>. Datu pertsonalak babesteko eskubideak baliatu ahal izango dira, Euskal Herriko Unibertsitateko datuak babesteko ordezkariari idatziz (helbide arrunta: Sarriena auzoa z. g., 48940 Leioa; helbide elektronikoa: dpd@ehu.eus).

Edonola ere, Ikuskaritza Zerbitzuari izena eta abizenak eman nahi ez bazaizkio, Ikasleen Kontseiluko presidenteari emango zaizkio, kexa bere egin dezan, eta horrek Datuak Babesteko Legearen arabera erabiliko ditu. Ikastegiari jarritako kexa Ikasleen Kontseiluko presidenteak bere egin eta aurkeztu badu, berak jasoko du ikastegiaren erantzuna eta berak joko du Irakasleen Errektoreordetzara.

Irakasleen Zuzendaritzak/Ikuskaritza Zerbitzuak salaketa aztertu ondoren, oinarrikerik baduen egiaztatuko du, eta alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaio irakasle-ikertzaileari, betiere ikasleen anonimatua gordeta. Gaiari buruzko erabakia hartu ondoren, horren jakinarazpena igorriko da ikastegira eta ikasleak adierazitako helbidera, edo kexa bere egin duen Ikasleen Kontseilura, eta azken horrek kexa jarri duen ikasleari helaraziko dio.

2. eredua: Ikastegiko Ikasleen Kontseiluko presidenteak Estatutuen 71. artikulua dela bide aurkeztutako salaketa**1. ORRIA:**

.....
 jauna/andrea, ikastegiko dekanu edo zuzendaria.

Dekano/zuzendari agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut Ikasleen Kontseiluko presidentea naizen aldetik, eta Estatutuen 71. artikulua dela bide. Kexa bat jaso dugu zure ikastegiko irakasle batek bere betebeharrak ez omen dituelako bete. Kexaren arrazoiak gutun honi erantsitako dokumentuan azaltzen dira.

Beraz, dokumentu hori aurkezteaz gain, honen bidez eskatzen dizut egoki diren neurriak har ditzazun arazoa konpontzeko, eta, zehapenerako arrazoirik balego, informazio erreserbatuaren fasea abiaraz dezazun, argitu ahal izateko irakasleak indarreko arauari jarraikiz jokatu duen ala ez.

Zure erantzunaren zain, har ezazu agurrik beroena.

Dagozkion ondorioak izan ditzan, dokumentu hau sinatzen dut leku eta data honetan:

.....
Ikasleen Kontseiluko
 presidentea

2. ORRIA:

Kexa zein kontseiluren aurrean aurkeztu den:

..... Ikasleen Kontseilua.

Kexa nori buruzkoa den:

Irakaslearen izen-deiturak:

.....
 Irakasgaia:

Titulazioa:

Ikastegia:

Kexaren gaia:

Irakaskuntza Tutoretzak Ebaluazioa Beste bat

Kexaren arrazoiak:

Ez da eskolara/azterketara etorri

Ebaluazio sistema aldatu du

Ez da egon tutoretza orduetan

Ez ditu notak argitaratu ezarritako epean (hamar egun azterketaren egunetik)

Bestelakoak:

Azalpen zehatza:

.....

2023ko azaroaren 13a, astelehena

3. eredia: ikasleak zuzenean aurkeztutako kexa**1. ORRIA:**

.....
 jauna/andrea, ikastegiko dekanu edo zuzendaria.

Dekano/zuzendari agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut, neure izenean eta eskubidez, zure ikastegiko irakasle batek bere betebeharrak ez dituela bete jakinarazteko. Gutun honi erantsitako kexan azaltzen dira gertaeraren xehetasunak.

Beraz, dokumentu hori aurkezteaz gain, honen bidez eskatzen dizut egoki diren neurriak har ditzazun arazoa konpontzeko, eta, zehapenerako arrazoirik balego, informazio erreserbatuaren fasea abiaraz dezazun, argitu ahal izateko irakasleak indarreko araei jarraikiz jokatu duen ala ez.

Zure erantzunaren zain, har ezazu agurrik beroena.

Dagozkion ondorioak izan ditzan, dokumentu hau sinatzen dut leku eta data honetan:

.....
 Sin.: Ikaslea

2. ORRIA:

Ikaslearen izen-deiturak:

NAN zk.: Jakinarazpenetarako helbidea: kalea:;

herria:

Ikastegia:

Titulazioa:

.....
 Goiko datuak ditudan honek idatzi hau aurkezten dut:

Neure izenean

Maila eta talde honen ordezkari gisa: (erantsi maila eta talde horretako ikasleen sinaduren dokumentua).

Beraz, honi erantsitako dokumentuaren bidez gertatutakoa jakinarazteaz gain, honen bidez eskatzen dizut egoki diren neurriak har ditzazun arazoa konpontzeko, eta, zehapenerako arrazoirik balego, informazio erreserbatuaren fasea abiaraz dezazun, argitu ahal izateko irakasleak indarreko araei jarraikiz jokatu duen ala ez.

OSO GARRANTZITSUA:

Helbide elektronikoa:

Telefonoa:.....

3. ORRIA:

Kexa nori buruzkoa den:

Irakaslearen izen-deiturak:

.....
 Irakasgaia:

Titulazioa:

Ikastegia:

Kexaren gaia:

Irakaskuntza Tutoretzak Ebaluazioa Beste bat

Kexaren arazoia:

Ez da eskolara/azterketara etorri

Ebaluazio sistema aldatu du

Ez da egon tutoretza orduetan

Ez ditu notak argitaratu ezarritako epean (hamar egun azterketaren egunetik)

Bestelakoak:

Azalpen zehatza:

.....

4. eredua: ikastegiko ikasleen kontseiluko presidenteak irakasleen arloko errektoreordeari Estatutuen 71. artikulua dela bide aurkeztutako salaketa**1. ORRIA:**

..... jauna/andrea,

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea.

Errektoreorde agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut

Ikasleen Kontseiluko presidentea naizen aldetik, eta Estatutuen 71. artikulua dela bide.

Kexa bat jaso dugu ikastegiko irakasle batek bere betebeharrak ez omen dituelako bete. Kexaren arrazoiak gutun honi erantsitako dokumentuan azaltzen dira.

Kexa hori ikastegiari jakinarazi zitzaion data honetan: Kexen protokoloan erantzuna emateko ezarritako epea igarota, ikastegiak ez du erantzun / ikastegiak emandako erantzuna ez da egokia izan.

Beraz, honi erantsitako dokumentuaren bidez gertatutakoa jakinarazteaz gain, honen bidez eskatzen dizut egoki diren neurriak har ditzazun arazoa konpontzeko, eta, zehapenerako arrazoirik balego, informazio erreserbatuaren fasea abiaraz dezazun, argitu ahal izateko irakasleak indarreko araei jarraikiz jokatu duen ala ez.

Zure erantzunaren zain, har ezazu agurrik beroena.

Dagozkion ondorioak izan ditzan, dokumentu hau sinatzen dut leku eta data honetan:

.....

Ikasleen Kontseiluko presidentea

2. ORRIA:

Kexa zein kontseiluren aurrean aurkeztu den:

..... Ikasleen Kontseilua.

Kexa nori buruzkoa den:

Irakaslearen izen-deiturak:

.....

.....

Irakasgaia:

Titulazioa:

Ikastegia:

Kexaren gaia:

Irakaskuntza Tutoretzak Ebaluazioa Beste bat

Kexaren arrazoia:

Ez da eskolara/azterketara etorri

Ebaluazio sistema aldatu du

Ez da egon tutoretza orduetan

Ez ditu notak argitaratu ezarritako epean (hamar egun azterketaren egunetik)

Bestelakoak:

Azalpen zehatza:

.....

.....

.....

.....

.....

5. eredua: ikasleak irakasleen arloko errektoreordeari aurkeztutako kexa**1. ORRIA:**

..... jauna/andrea,

Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea.

Errektoreorde agurgarria:

Idatzi hau bidaltzen dizut, neure izenean eta eskubidez,

..... ikastegiko irakasle batek bere betebeharrak ez dituela bete jakinarazteko. Gutun honi erantsitako kexan azaltzen dira gertaeraren xehetasunak.

Kexa hori ikastegiari jakinarazi zitzaion data honetan: Kexen protokoloan erantzuna emateko ezarritako epea igarota, ikastegiak ez du erantzun / ikastegiak emandako erantzuna ez da egokia izan.

Beraz, honi erantsitako dokumentuaren bidez gertatutakoa jakinarazteaz gain, honen bitartez eskatzen dizut egoki diren neurriak har ditzazun arazoa konpontzeko, eta, zehapenerako arrazoirik balego, informazio erreserbatuaren fasea abiaraz dezazun, argitu ahal izateko irakasleak indarreko araei jarraikiz jokatu duen ala ez.

Zure erantzunaren zain, har ezazu agurrik beroena.

Dagozkion ondorioak izan ditzan, dokumentu hau sinatzen dut leku eta data honetan:

Sin.:

Ikaslea

2. ORRIA:

Ikaslearen izen-deiturak:

NAN zk.: Jakinarazpenetarako helbidea: kalea:;

herria:

Ikastegia:

Titulazioa:

Goiko datuak ditudan honek idatzi hau aurkezten dut:

Neure izenean

Maila eta talde honen ordezkari gisa:

Beraz, honi erantsitako dokumentuaren bidez gertatutakoa jakinarazteaz gain, honen bitartez eskatzen dizut egoki diren neurriak har ditzazun arazoa konpontzeko, eta, zehapenerako arrazoirik balego, informazio erreserbatuaren fasea abiaraz dezazun, argitu ahal izateko irakasleak indarreko araei jarraikiz jokatu duen ala ez.

OSO GARRANTZITSUA:

Helbide elektronikoa:

Telefonia:.....

3. ORRIA:

Kexa nori buruzkoa den:

Irakaslearen izen-deiturak:

Irakasgaia:

Titulazioa:

Ikastegia:

Kexaren gaia:

Irakaskuntza Tutoretzak Ebaluazioa Beste bat

Kexaren arazoia:

Ez da eskolara/azterketara etorri

Ebaluazio sistema aldatu du

Ez da egon tutoretza orduetan

Ez ditu notak argitaratu ezarritako epean (hamar egun azterketaren egunetik)

Bestelakoak:

Azalpen zehatza:

.....

2. ERANSKINA

TALDEKO DELEGATUAK HAUTATZEKO PROTOKOLOA.

Ikastegiak ikasturtearen hasieran hauteskundeak egingo dituzte taldeko delegatuak hautatzeko, honako protokolo honi jarraikiz:

1.– Hauteskunde egutegia egitea:

Talde bakoitzeko delegatua hautatuko da ikasturte bakoitzean matrikulaziorik handiena duen irakasgaien, hautazko irakasgaiak bazter utzita.

Ikastegiak edo atalak, bere ikasleen kontseiluarekin batera, hauteskunde egutegia osatu beharko du, eta bertan talde bakoitzeko delegatua hautatzeko datak ezarriko ditu, ikasturtearen lehenengo hogeita eskola egunen barruan. Ikastegi edo atala harremanetan jarriko da hautaketa egin behar deneko irakasgaien irakasle arduradunekin, eta jarraitu beharreko prozeduraren eta bete beharreko eginkizunen berri emango die. Ikastegi edo atalak bermatu egingo ditu irakasleen prestasuna eta parte hartzea.

Hautaketa egin behar deneko irakasgaiaren irakasle arduradunak bermatu egin beharko du hauteskunde prozedura behar bezala garatuko dela:

- Hautaketa dagokion egunean eta orduan egin dadila bermatuko du.
- Hautaketa aktaren eredia jasoko du ikastegi edo ataleko zuzendaritzan.
- Hautaketa egin behar den egunean, matrikulatuta dauden ikasleen zerrenda eramango du.
- Hautaketa prozesuaren akta egingo du eta ikastegi edo ataleko zuzendaritzaren esku jarriko du.

2.– Iragarkia.

Ikasturtearen hasieran, ikastegi edo atalak bere ikasle guztiei iragarriko die hauteskunde prozesua irekiko dela, gutxien dela, hautaketa egin baino astebete lehenago.

Ikasleei delegatuen eskubideak eta betebeharrak jakinaraziko zaizkie (14.2 artikulua). Era berean, jakinaraziko zaie delegatua izateak kredituak aitortzeko balio dezakeela, unibertsitateko arautegiaren arabera.

Ikastegi edo atalak ikasleei jakinaraziko die ezen, agertzen ez badira hautaketa egingo den irakasgaietan matrikulatutako ikasleen zerrendetan, haietako batean sartzeko eskatu ahal izango dutela, baina hautaketa baino gutxienez bi egun lehenago egin beharko dute eskaria.

3.- Hautaketarako prozedura.

1) Hauteskunde mahaia osatuko da irakasgaiko irakasle arduradunarekin eta, matrikulatutako ikasleen zerrenda alfabetikoko lehenengo eta azken pertsonekin (ikasgelan ez baleude, zerrendan behera eta gora egingo da, ikasgelan diren lehen eta azken ikasleak aurkitu arte).

2) Hamabost minutu izango ditu hautagaiak bere programa edo ideiak azaltzeko. Bi hautagai baino gehiago badaude, denbora hori hamar minutura murriztuko da.

3) Ondoren, mahaiak botoa emateko deia egingo die, zerrendako ordenari jarraikiz, matrikulatutako pertsoneri, eta haiek dakarten identifikazio agiriaren bidez identifikatuko dira.

Pertsona bakarra aurkezten bada, bozketan «bai» edo «zuri» bozkatuko da, haren hautagaitza onartu edo errefusatzeko. Pertsona hori hautatua izan dadin, emandako botoen herena baizkoa izan beharko da.

Ikasle boluntariorik ez badago, bozketa egingo da zerrendako ikasle guztiak hautagai izanik. Ikasle orok du karguari uko egiteko eskubidea. Hautatuak diren ikasle guztiek uko egiten badiote, taldea delegaturik gabe geratuko da.

Bozketa egin egingo da, kontuan hartu barik ikasgelan zenbat ikasle dauden.

Boto txanda bakarra egongo da, eta boto gehien lortzen dituen pertsona izango da hautatua, berdinketa bat desegitea beharrezkoa denean izan ezik. Bozketa sekretua izango da eta boto paperen bidez egingo da.

4) Kontaketa jendaurrean egingo da.

5) Irakasleak akta egiten du, azken emaitza eta hautaketan gertatutako edozein gorabehera jasota.

6) Akta dagokion ikastegi edo ataleko dekanotzan edo dekanordetzan gordeko da.

7) Delegatuen zerrenda bidaliko zaio, haien helbide elektroniko korporatiboekin batera, dagokion ikasleen kontseiluari, jakinaren gainean egon dadin eta gainerako ondorioetarako, bai eta ikasleen arloko errektoreordetzari ere.

4.- Ikastegiko edo ataleko ikasleen kontseiluan taldeko delegatuen ordezkariak hautatzea.

Taldeko delegatuen hauteskunde prozesua amaitzean, ikastegi edo ataleko ikasleen kontseiluak, edo, halakorik ezean, ikastegiko zuzendaritza taldeak, bilera batera deituko ditu delegatu guztiak. Bilera horretan, beren betebeharren eta eskubideen berri emango zaie, baita beren taldeko delegatu gisa interesatzen zaizkien gainerako gaien berri ere. Ondoren, ikastegi edo ataleko ikasleen kontseiluko kide izango diren delegatuak hautatuko dira. Taldeko delegatu guztiak izango dira hautesle eta hautagai. Boto gehien jaso dituzten delegatuak izango dira hautatuak, ikasleen kontseilu horretan dauden postu guztiak bete arte.